



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN UR HORNIDURA,
SANEAMENDU ETA ARAZKETA ZERBITZUAK EMATEAGATIKO
TASAK ARAUTZEN DITUEN**

ORDENANTZA



AURKIBIDEA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	4
1. ARTIKULUA - HELBURUA	4
2. ARTIKULUA - OINARRIA	4
3. ARTIKULUA - AHALMENAK ETA ESKUMENAK	4
4. ARTIKULUA - EREMUA	4
5. ARTIKULUA - TARIFEN EGITURA	5
II. KAPITULUA: ZERGA-EGITATEA.....	5
6. ARTIKULUA - ZERGA-EGITATEA ORO HAR.....	5
7. ARTIKULUA - UR HORNIKUNTZA TASA	6
8. ARTIKULUA - SANEAMENDU TASA	6
9. ARTIKULUA - SANEAMENDU TASATIK SALBUESTEN DIREN KASUAK	6
10. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDU TASEI LOTUTAKO ERABILERA DESBERDINAK	6
11. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA HARTUNEAK BETEARAZTEAGATIKO TASA.....	8
12. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA KONTAGAILUEN TASAK	8
12 BIS ARTIKULUA - TITULARTASUNEN ALTA, BAJA ETA ALDAKETEN ADMINISTRAZIO TASAK	8
13. ARTIKULUA - BANAKETA-SAREAN LANAK EGITEAGATIKO ETA OBRA PARTIKULARREN ONDORIOZ ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA	9
14. ARTIKULUA - LEHEN MAILAKO SANEAMENDU SAREAN ZUZENEKO HARTUNEAK EGITEARI DAGOKION TASAREN ZERGA-EGITATEA	9
15. ARTIKULUA.- ARAZKETA INSTALAZIO AUTONOMOEN TRATAMENDUA.....	9
15BIS. ARTIKULUA - ARAZKETA INSTALAZIO AUTONOMOETAKO HONDAKINAK HUSTU, GARBITU ETA GALINDOKO HUARA GARRAITZEKO LANENGATIKO TASA.....	10
III. KAPITULUA.- SUBJKTU PASIBOAK.....	11
16. ARTIKULUA - SUBJKTU PASIBOAK, ORO HAR	11
17. ARTIKULUA - UR-HORNIDURAREN TASA	11
18. ARTIKULUA - SANEAMENDU TASA	11
19. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA HARTUNEAK BETEARAZTEAGATIKO TASA.....	12
20. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA KONTAGAILUEN TASAK	12
20 BIS ARTIKULUA - TITULARTASUNAREN ALTA, BAJA ETA ALDAKETEN ADMINISTRAZIO TASAK.....	12
21. ARTIKULUA - BANAKETA-SAREAN LANAK EGITEAGATIKO ETA OBRA PARTIKULARREN ONDORIOZ ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA	12
21BIS. ARTIKULUA - ARAZKETA INSTALAZIO AUTONOMOETAKO HONDAKINAK HUSTU, GARBITU ETA GALINDOKO HUARA GARRAITZEKO LANENGATIKO TASA.....	13
IV. KAPITULUA: ZERGAPETZEAREN OINARRIAK	13
22. ARTIKULUA - ZERGA-OINARRIA ORO HAR	13
23. ARTIKULUA - UR HORNIKUNTZA TASA	13
24. ARTIKULUA - SANEAMENDU TASAREN ZERGA-OINARRIA.....	14
25. ARTIKULUA - EGIAZTAPENGATIKO KITAPENERAKO ETA KONTAGAILUEN MATXURA EDO AKATSENGATIKO ARAUPETZERAKO SUPOSAMENDUAK, UR HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDU TASETAN.....	19
26. ARTIKULUA - BARRUKO INSTALAZIOETAKO EZUSTEKO MATXURETARAKO SUPOSAMENDUA, UR HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDU TASETAN.....	19
27. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA HARTUNEAK BETEARAZTEAGATIKO TASA.....	20
28. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA KONTAGAILUEN TASAK	20
28 BIS ARTIKULUA - TITULARTASUNAREN ALTA, BAJA ETA ALDAKETEN TASAK.....	20
29. ARTIKULUA - BANAKETA-SAREAN LANAK EGITEAGATIKO ETA OBRA PARTIKULARREN ONDORIOZ ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA	20
29 BIS. ARTIKULUA - ARAZKETA INSTALAZIO AUTONOMOETAKO HONDAKINAK HUSTU, GARBITU ETA GALINDOKO HUARA GARRAITZEKO LANENGATIKO TASA.....	20
V. KAPITULUA: ZERGA-KUOTA.....	21
30. ARTIKULUA - ZERGA-KUOTA	21
VI. KAPITULUA: TASEN APLIKAZIOA: KUDEAKETA, KITAPENA ETA BILKETA.....	21

LEHENENGO ATALA.- SORTZAPENA	21
31. ARTIKULUA - SORTZAPENA ORO HAR	21
32. ARTIKULUA - UR HORNIKUNTZA TASA	21
33. ARTIKULUA - SANEAMENDU TASAREN SORTZAPENA	21
34. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA HARTUNEAK BETEARAZTEAGATIKO TASA.....	22
35. ARTIKULUA - LEHEN MAILAKO SANEAMENDU SAREAN ZUZENEN HARTUNEAK EGITEARI DAGOKION TASAREN SORTZAPENA ...	22
36. ARTIKULUA - HORNIKUNTZA KONTAGAILUEN TASAK	22
36 BIS ARTIKULUA - TITULARTASUNAREN ALTA, BAJA ETA ALDAKETEN TASAK.....	22
37. ARTIKULUA - BANAKETA-SAREAN LANAK EGITEAGATIKO ETA OBRA PARTIKULARREN ONDORIOZ ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA	22
37BIS. ARTIKULUA - ARAZKETA INSTALAZIO AUTONOMOETAKO HONDAKINAK HUSTU, GARBITU ETA GALINDOKO HUARA GARRAITZEKO LANENGATIKO TASA.....	23
BIGARREN ATALA.- ZERGALDIA	23
38. ARTIKULUA - ALDIZKAKO SORTZAPENEN TASETAKO ZERGALDIA	23
39. ARTIKULUA - ZERGALDIA, ALDIZKAKO SORTZAPENA EZ DUTEN HORNIDURA-TASETAN	23
40. ARTIKULUA - TARIFEN HAINBANAKETA.....	23
HIRUGARREN ATALA.- ZERGA-KUDEAKETAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK	24
41. ARTIKULUA - TASEN LIKIDAZIOA	24
42. ARTIKULUA - BATERAKO KUDEAKETA.....	24
43. ARTIKULUA - FAKTURAZIOA ERABILTZAILERARI.	24
44. ARTIKULUA - FAMILIA UGARIEI, SENITARTEKO GUZTIAK LANGABEZIAN DITUZTEN FAMILIEI, GUTXIENEN PENTSIOAK DITUZTEN ERRETIRATU ETA PENSIODUNEI, ONGINTZAZKO ZENTROEI ETA ETXEETAKO BESTELAKO KASU BATZUEI EGINDAKO FAKTURAZIOA ..	24
44BIS ARTIKULUA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA EDO BIZITZEKO GUTXIENEN DIRU SARRERA JASOTZEN DUTENENTZAKO HOBARI FISKALA	25
45. ARTIKULUA - BETEBEHAR FORMALAK	27
LAUGARREN ATALA.- TASEN BILKETARAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK	27
46. ARTIKULUA - ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA	27
47. ARTIKULUA - ALDI BETEARAZLEA	27
48. ARTIKULUA - ORDAINTZEKO MODUAK	27
VII. KAPITULUA: ZIGORTZEKO AHALMENA	28
LEHENENGO ATALA.- ZERGA ARAU-HAUSTEAK	28
49. ARTIKULUA - KONTZEPTUA.....	28
50. ARTIKULUA - MOTAK	28
BIGARREN ATALA.- ZEHAPENAK ETA NEURRI OSAGARRIAK.....	28
51. ARTIKULUA - ARAUBIDE JURIDIKOA	28
52. ARTIKULUA - NEURRI OSAGARRIAK	28
53. ARTIKULUA - IRUZURTUTAKO KOPURUEN ZENBATESPENA.....	29
54. ARTIKULUA - BIRJARPENA ETA KALTE-ORDAINA	29
55. ARTIKULUA - ZEHAPENEN ETENDURA	29
VIII. KAPITULUA: BERRIKUSPEN PROZEDURAK	30
56. ARTIKULUA - SARRERA.....	30
57. ARTIKULUA - BERRIKUSPENEN PROZEDURA BEREZIAK	30
58. ARTIKULUA - BIRJARPENEZKO ERREKURTSOA	30
AZKEN XEDAPENA	34
I. ERANSKINA	35
III. ERANSKINA	47



I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua - Helburua

1. Ordenantza Fiskal honek BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN -aurrerantzean, Partzuergoa-eremuko ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzua emateagatiko tasak eratzea eta araupetzea du helburu, estatutuen arabera Partzuergoaren eta Udalerrien arteko eskumen-banaketarako araubidearekin bat etorritz.

2. artikulua - Oinarria

Ordenantza Fiskal honen xede diren tasen eraketa Partzuergoko kide diren udalerrien lurralde-eremuan tarifa-uniformetasuna egoteko printzipioan oinarritzen da, hornidurako eta saneamenduko zerbitzuetarako, bigarren mailako sareko saneamendu zerbitzurako salbu (zerbitzu hori BBUpekin hitzartu ezean). Halaber, beste oinarri bat da uraren ziklo osoaren kontzeptua, alegia, hiri-ingurunean ura erabiltzeak berekin dakartzan prozesu eta jardueren multzoa; bestela esanda: sare-azpiegitura konplexu bat egotea, haien bidez ura hartuneetatik kontsumoraino kanalizatzeko; bertan, "goi"-hornidurako azpiegitura hori ura gora jasotzeko, biltegitratzeko, edangarri bihurtzeko eta hornitzeko instalazioekin lotzen da, ahaztu gabe txorrotako ura, erabili eta gero, saneamendu sareetan zehar husten dela hondakin urak tratatzeko instalazioetaraino, atzera ere isuri baino lehen.

3. artikulua - Ahalmenak eta eskumenak

1. Partzuergoak finantza eta zerga zein arauko ahalmenak ditu legezko esleipenaren arabera.
2. Era berean, bere sorrera-arauaren arabera, Partzuergoari dagokio hornikuntza eta saneamenduagatiko tarifen zenbatekoa ezartzea eta zehaztea, udalerriek zerbitzu horien zatiren bat ematen jarraitzen duten -bigarren mailako sareko saneamendu zerbitzua alde batera utzita- eta zuzenean edo zeharka kudeatzen duten kontuan hartu gabe.
3. Edozelan ere, Partzuergoak erabat kapital propioa duen merkataritza-sozietate baten esku utzi ahalko du hornidura eta/edo saneamendu eta arazketa zerbitzuen erabiltzaileen fakturazioa, une bakoitzean indarrean diren tasa tarifak aplikaturik, Ordenantza Fiskal honetan ezartzen diren baldintzekin eta aldietarako.

4. artikulua - Eremua

1. Partzuergoratutako udalerrien eremu geografikoa da Ordenantza Fiskal hau ezartzeko lurralde eremua.
2. Era berean, Ordenantza Fiskal hau aplikatzekoa izango da Partzuergoarekin lankidetzahitzarmenak izenpetu dituzten udalerrietan, Ordenantzaren xedea eratzen duten zerbitzu guztiak edo haietako batzuk emateko, dena delako hitzarmenetik ondorioztatzen den moduan.
3. Alderdi objektiboari dagokionez, Ordenantza Fiskal honek lehen eta bigarren mailako sareko hornikuntza zerbitzuak eta lehen eta bigarren mailako sareko saneamendu zerbitzuak aipatu

edo ukitzen ditu. Hala ere, bigarren mailako sareko saneamendu zerbitzua emateagatik udalerrri bakoitzak erabiltzaileei eskatzen dizkien ordainarazpenak ez daude Ordenantzaren ezarpen-eremuan barne hartuta, udalerriei dagokielako zehaztea eta araupetzea, zerbitzu horiek ematen dituzten bitartean.

4. Eremu subjektiboari dagokionez, Ordenantza hornidura eta/edo saneamendu eta arazketa zerbitzuen erabiltzaile guztiei izango zaie aplikatzekoa, zerbitzua arautzen duen Ordenantzan – eta, hala dagokionean, Ordenantza Fiskal honen xede diren zerbitzuak ematea arautzen duten gainerako xedapenetan– definitutakoaren arabera.

5. artikulua - Tarifen egitura

1. Ordenantza honen xede diren tasen tarifa-egitura uraren ziklo osoaren kontzeptuan eta lurralde-uniformetasunaren, berdintasunaren, zuzentasunaren, nahikotasunaren eta kostu-berreskurapenaren printzipioetan oinarritzen da.
2. Erabiltzaileei bigarren mailako sareko Ur Hornikuntza eta Saneamenduagatik ezarritako Tasen tarifek zerbitzuaren kostu guztiak barne hartzen dituzte kasu guztietan. Hau da, bigarren mailako sareko kostu bereziak eransten dizkiete lehen mailako sareko zerbitzuaren tarifei. Saneamendu tarifek bigarren mailako sareko zerbitzuaren kostua, Partzuergoak zerbitzu hori ematea bere gain hartzen duen neurrian, kasuan kasuko udalerrian. Ordura arte, saneamendu zerbitzuagatiko tasek lehen mailako sareko saneamenduaren zerbitzuaren kostuak baino ez dituzte barne hartuko.
3. Kostuak berreskuratzeko printzipioaren ildotik, tarifa ingurumen-gastuak, baliabidearen kostuak eta zerbitzuak kudeatzeko kostuak estaltzera bideratuko da, nola finakoak, hala aldakorrak. Edozelan ere, zerbitzuak kudeatzeko kostuen barruan honako hauek egongo dira halabeharrez: dauden azpiegituren amortizazioa; halakoak ustiatu, babestu eta mantentzeko gastuak; eta, hala dagokionean, bizitza erabilgarria agortu aurretik haien ordeaz azpiegitura berriak jartzeko beharrezkoa dena, zerbitzuen eraginkortasun ekonomikoa eta baliabidearen erabilera arrazionala mantendu eta, ahal den neurrian, hobetze aldera.

II. KAPITULUA: ZERGA-EGITATEA

6. artikulua - Zerga-egitatea oro har

1. Oro har, Ordenantza Fiskal honetan arauturiko ordainarazpenak sortzen dituen zerga-egitatea eratzten dutenak hauek dira: uraren ziklo osoaren barruko jarduerak, lehen mailako sarean urhornidurako zerbitzuak ematea, “goi”-hornidura edo adukzio-zerbitzua (aurrerantzean, lehen mailako sareko hornidura) eta, bigarren mailako sarean, “behe”-hornidura edo banaketa zerbitzua (aurrerantzean, bigarren mailako sareko hornidura). Saneamenduari dagokionez, lehen mailako sarean zerbitzuak ematea, eten eta arazteko zerbitzua (aurrerantzean, lehen mailako sareko saneamendua); eta bigarren mailako sarean, behe-saneamendua edo estolderia-zerbitzuan, zerbitzu horiek guztiak Partzuergoaren lurralde-eremuan dauden erabiltzaileentzat ematen direnean.
2. Kapitulu honetako hurrengo artikuluetan, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematearen ondorioz zerga-egitatetzat hartzen diren egoerak artikulatzen dira.



7. artikulua - Ur Hornikuntza Tasa

Hornikuntza sareen erabilgarritasuna eta bertatik egindako kontsumoa da Ur Hornikuntza Tasaren zerga-egitatea, kontsumoa lehen mailako saretik zuzenean egiten denean edo baita bigarren mailako sareetatik egiten denean ere, ahalezko edota benetako ur hornidura-aukeraren arabera.

Ur Hornikuntza Tasa banaka eta Saneamendu Tasatik bereizi sor dadin, nahitaez izan behar da jasota Isurketa Baimena, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamendu eta Arazketa zerbitzua arautzen duen Ordenantzak xedatutakoarekin bat etorritz.

8. artikulua - Saneamendu Tasa

Saneamendu tasaren zerga-egitatea hornidura publiko edo pribatutik datozen uren isurketa erreal edo posibleak eratzten du; izan ere, uraren ziklo osoa osatzen duten prozesuekin bat etorritz, horniduraren bidez eskuratzen diren ur-bolumen horiek behar bezala tratatu behar dira, eta, horretarako, saneamendu-sistema publikoak egin, funtzionamenduan eduki eta onik zaindu behar dira, hondakin urak edo hondakin lohiak bildu eta tratatzeko martxan eta/edo egitasmoan dauden saneamendu sareen edo bestelako sistema batzuen erabilgarritasunaren arabera..

Berezko baliabideetako isurketetarako, Saneamendu Tasa banaka sortuko da, Ur Hornikuntza Tasatik bereizi.

9. artikulua – Saneamendu tasatik salbuesten diren kasuak

Kasu hauek saneamendu tasatik salbuetsita egongo dira:

1. Partzuergoak ezarririko araudiarekin bat etorritz, isurketa-dispentsa lortu denean.
2. Abeltzaintzako eta/edo nekazaritzako erabilerak dituzten instalazioak, familia-etxebizitzari erantsita ez daudenean, edo, erantsita egonez gero, hornidura-kontagailu bereziak dauzkaten.

Edozelan ere, abeltzaintzarako instalazioek Bizkaiko Foru Aldundiak emandako abeltzaintza-ziurtagiria edo abeltzaintza-zentroaren fitxa izan beharko dute, bai eta mindaren tratamendu ordenatu eta berezia eduki edo horretarako espezializatutako establezimendu batek tratamendua ematen diola justifikatu ere.

Nekazaritzako erabilerak dituzten instalazioek Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribaturiko ustiatagia izateko ziurtagiria izan beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiak emana.

10. artikulua - Hornikuntza eta Saneamendu Tasei lotutako erabilera desberdinak

Bi zerbitzugintzengatiko (Ur Hornikuntza Tasa eta Saneamendu Tasa) tasen tarifa desberdinak zehazteko asmoz, hasierako egoera desberdinak bereizi behar dira:

A) Hornikuntza Tasarako:

1º: Lehen mailako sareko hornidurak:

Euren jardueraren ezaugarriak direla-eta, urtero segundoko lau litroko edo hortik gorako bolumena duten batez besteko emariak eskatzen dituzten eta etxeakoak ez diren erabiltzaileei zuzendutakoak, beti ere Partzuergoaren Saretik zuzenean hornitzen badira.

Salbuespenez, aldi baterako hartuneetarako eta/edo etxeakoak ez diren erabileretarako direnak, segundoko 4 litrotik beherako kontsumoak dituztenean eta hornidura sare batetik hornitzea ezinezkoa denean.

2º: Bigarren mailako sareko hornidurak:

Gainerako hornidurak dira, eta aldi berean, honako mota hauetakoak daude kontsumoaren helburuaren arabera:

- 2.1 Etxeko erabileretarako hornidurak; etxebizitzetan egiten direnak dira, beti ere bertan inolako industria, merkataritza edo lanbide jarduerarik egiten ez bada. Ongintzako establezimenduak eta etxe ur beroko instalazio zentralizatuak ere barne hartzen dira.
- 2.2 Udaleko kirol bulego eta instalazioetarako hornidurak eta/edo oso-osorik udal aurrekontuaren kontura diren bestelako hornidurak
- 2.3. Industrietarako, merkataritza eta zerbitzu establezimenduetarako, nekazaritza jardueretarako, Foru Aldundiko, Autonomia Erkidegoko eta Estatuko Administrazioaren bulegoetarako eta erakunde autonomiadunetarako hornidurak, suteen aurkako sare-ahok, ureztatze ahoak, zisterna ibilgailuak eta antzeko jarduerak, bai eta artikulua honetako beste epigrafeetan barne hartuta ez dagoen beste edozein hornidura.
- 2.4. Aldi baterako hartuneak.

B) Saneamendu Tasarako:

B.1.- A motako eta B motako erabiltzaileak, Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arautzeko Partzuergoaren Ordenantzaren jatorriko sailkapenaren arabera, Ordenantza Fiskal honen ondorioetarako hauek direnak:

- 1.1 Etxeko erabileretatik datozen isurketak egiten dituzten erabiltzaileak, eta halakotzak joko dira etxebizitzetan egiten diren guztiak, baldin eta haietan inolako jardura industrial, komertzial edo profesionalik aurrera eramaten ez bada. Barruan daude ongintzako establezimenduak eta etxe ur berorako instalazio zentralizatuak.

Idatz-zati honetan sartzen dira baliabide propioetatik datozen isurketak egiten dituzten etxebizitzetako erabiltzaileak.
- 1.2 Udalen bulego edo kirol-instalazioetatik datozen isurketak egiten dituzten erabiltzaileak eta/edo osotasunean udal-aurrekontuaren konturakoak diren beste hornidurak.
- 1.3 Industrietatik, merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetatik, nekazaritza-jardueretatik, foru-aldundiaren, autonomia-erkidegoaren edo Estatuko administrazioaren bulegoetatik datozen isurketak egiten dituzten erabiltzaileak, erakunde autonomoak, sute-ahoen sareak eta artikulua honetako epigrafeetan sartu ez den beste edozein hornidura.

B.2.- C motako erabiltzaileak, Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arautzeko Partzuergoaren Ordenantzaren jatorriko sailkapenaren arabera, Ordenantza Fiskal honen ondorioetarako hauek direnak:



- 2.1 Ura industriako edo merkataritzako jardueretarako erabili, eta 200 biztanle baliokidetik gorako kutsadura-karga sortzen duena, aipaturiko Ordenantzako 16. artikulua araberaz zehaztuta.
- 2.2. Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu ere, erabiltzaileak kolektoreentzat gogorrak diren isurketak sortzen dituzten edo sor ditzaketen prozesuak baditu, edo metal astunak edo gai inhibitzaileak sailka daitezkeen beste elementu batzuk dituzten prozesuak, arazketa prozesuetan eragin negatiboa izateagatik.

11. artikulua - Hornikuntza Hartuneak Betearazteagatiko Tasa

1. Partzuergoak ur edangarriaren banaketa-sareetan hartuneak jartzea da Hartuneak Betearazteagatiko Tasaren zerga-egitatea.
2. Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren hartunetzat zehaztutako elementuak instalatzea eta jartzea jotzen da hartune-betearazpentzat.
3. Horren ondorioz, erretanak zabaldu eta ixtea nahiz zorua, baldosak eta hiriko altzarietako osagaiak aldatzea ez da hartune-betearazpentzat hartzen.

12. artikulua - Hornikuntza Kontagailuen Tasak

Kontagailuei lotutako askotariko zerbitzuak ematea da Kontagailuen Tasen zerga-egitatea, hain zuzen ere:

- a) *Kontagailuak Hornitzea eta Aldatzea*, erabiltzaileak eskatuta, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako baldintzetan.

Tasa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira 50 mm-tik beherako kalibrea duten kontagailuen hornidura eta instalazio zerbitzuak, hornidurak legeztatzeke ofiziozko jarduketan kasuan izan ezik

- b) *Kontagailuak Alokatzeko*, aurreko kontratuetan horrela aurreikusten bada.
- c) *Kontagailuak Instalatu eta Jasotzeko Jarduera*, bai eta *Lekuz Aldatzeko* ere, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako suposamendu eta baldintzetan.
- d) *Kontagailuak Zaintzeko Jarduera*, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako suposamendu eta baldintzetan.
- e) *Kontagailuak Egiatzatzeko Jarduera*, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako suposamendu eta baldintzetan.

12 bis artikulua - Titulartasunen alta, baja eta aldaketan administrazio tasak

Titulartasunen alta, baja eta aldaketengatiko administrazio tasaren zergapeko egitatea honako hau da: titulartasuna altan eman, bajaran eman edo aldatzeko eskabideak izapidetzea edo jarduera teknikoak eta/edo administratiboak egitea (honako zeregin hauek barne: kontagailuak jarri eta erabiltzea, kontratazio jarduketak egitea eta zerbitzua behar bezala fakturatzeko eta kobratzeko beharrezkoak diren kudeaketa tresnetan informazioa eguneratzea).

Jarduera horiek subjektu pasiboaren aldez aurreko jakinarazpenaren ondorioz sor daitezke, baita ofizioz ere, hornikuntza eta/edo saneamendu zerbitzuak emateagatiko tasen subjektu pasibo berri baten berri emateko beharra agerian uzten duen ikuskapen jarduketa baten edo beste edozein jarduketaren ondorioz.

Kontagailuak hornitzeak eta ordezteak, bai erabiltzaileak eskatuta, bai ofizioz, nahitaezko neurketa tresnarik gabe funtzionatzen ari diren hornidura instalazioen kasuan, titulartasunaren alta, baja eta aldaketa tasa administratiboaren salbuespena eragingo du.

13. artikulua - Banaketa-sarean lanak egiteagatiko eta obra partikularren ondorioz zerbitzuak emateagatiko Tasa

1. Honakoen ondorioz Partzuergoak egindako lanek osatzen dute Tasaren zerga-egitatea:
 - a) Erabiltzaileek edateko uraren hornikuntzako zerbitzu publikoari eragiten dioten lanak egitea.
 - b) Lanen betearazpen subsidiarioa, lanok ez egiteak kalteak eragiten dizkienean hirugarrenei.
 - c) Banaketa-sareko instalazioen gehikuntza edo aldarazpena egiteko eskabideak, eta baita industrialde berrietako hornikuntzak ere
2. Partzuergoaren lantzat hartuko da, esku-hartzea edo behar diren baliabideak jartzea, bai partikular batek obra berri bat egin dezan edo ur hornikuntzako barruko instalazioetan akatsak zuzen ditzan, bai partikularrek egin beharko lituzketen baina lanok ez egiteak hirugarrenei eragingo lizkieketen kalteengatik Partzuergoak subsidiarioki egiten dituzten lanetarako.

Halaber, banaketa-sarearekiko konexioak egiteak, Hornikuntza Zerbitzua Arautzeko Ordenantzaren 17, 18, 22 eta 23. artikuluetan arautu denaren arabera Partzuergoak beretzat erreserbatzen duen eragiketa, Partzuergoaren jarduketa eratzten du subjektu pasiboak banaketa-sareko instalazioen zabalkuntza edo aldarazpenari edo industrialde berrien hornikuntzari lotuta dauden eskabidearen ondorioz.

Zerga-egitatea definitzen duten kasu horietan guztietan Partzuergoaren jarduketa egon dagoen sarearekiko konexioa egitera mugatuko da eta kanpoan geratzen dira zangak egiteko eta estaltzeko lanak, kutxetak, zoladurak, baldosak eta hiri-altzariak eta antzekoak lehengoratzeari

3. Banaketa-sarerako hartune berriak egiteko eskaerak salbuetsita daude, baina ez, berriz, banaketa-sarea handitu edo ordezkatzeko eskaerak.

14. artikulua - Lehen mailako saneamendu sarean zuzeneko hartuneak egiteari dagokion tasaren zerga-egitatea

Tasa honen zerga-egitatea da Partzuergoaren lehen mailako sarerako loturak egitea.

15. artikulua.- Arazketa Instalazio Autonomoen tratamendua

A.- Saneamendu Sistema batek zerbitzatutako eremu batean funtzionamenduan dauden titulartasun pribatuko arazketa instalazio autonomoak.



Erabiltzaile horiei, oro har, isurketak saneamendu sarera egiten dituzten A motako erabiltzaileentzat ezarrita dagoen saneamendu tasa izango zaie aplikatzekoa, isurketa horiek benetan egin zein ez egin, sarea eskuragarri dutelako eta instalazio autonomoa kentzera eta sarera lotzera behartuta daudelako.

Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arazteko Partzuergoaren Ordenantzaren –seigarren xedapen iragankorreko 1. eta 2. oaragrafoetan– kasu horietarako ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eta bertan aipatzen diren gastuak izango dira haien konturakoak.

Instalazio horiek sistematik deslotzeko ezarririko epea betetzen ez bada, Galindoko HUA beste hondakin hustuketa bat egiten duten bakoitzean gainordain bat aplikatuko zaie, lohion tratamenduaren kostuen parekoa, Ordenantza Fiskal honetan ezartzen denaren arabera.

B.- Saneamendu Sistema batek zerbitzatzen ez duen eremu batean dauden titulartasun pribatuko arazketa instalazio autonomoak.

Talde honetan sartzen diren erabiltzaileek lehen aipatutako Zerbitzu Ordenantzaren –seigarren xedapen iragankorreko 3. paragrafoan– kasu horretarako ezarrita dauden aurreikuspenak eta baldintzak bete beharko dituzte, eta bertan adierazten diren gastuak izango dira haien konturakoak.

Erabiltzaile horiei isurketak araztegiara zuzenean egiten dituzten A motako erabiltzaileei dagokien tasa, Ordenantza Fiskal honek arautu bezala, izango zaie aplikatzekoa, zerga-egitatea arazketaren arlora bakar-bakarrik mugatzen delako.

Partzuergoek halako erabiltzaileei instalazioak hustu eta garbitzeko zerbitzu kolektiboa eskaini ahalko die, bai eta ondoriozko lohiak Galindoko HUAraino eramateko garraioa ere. Jarduera horiek guztiak haien konturakoak izango dira. Partzuergoari azken zerbitzu hori nola ordaindu Ordenantza Fiskal honetan ezarritako tasaren bidez arautuko da.

C.- Zenbait etxe-multzori edo auzori zerbitzua ematen dieten estolderia sare eta/edo arazketa instalazio autonomo komunak, Saneamendu Sistema batek zerbitzatzen ez dituen eremuetan.

Instalazio horiei Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arazteko Ordenantzaren –seigarren xedapen iragankorreko 4. paragrafoan– ezarrita dauden irizpideen arabera arautuko dira, eta isurketak saneamendu sarera zuzenean egiten dituzten A motako erabiltzaileentzat ezarrita dagoen saneamendu tasa izango zaie aplikatzekoa.

15bis. Artikulua – Arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraitzeko lanengatikoko tasa

Tasa honen zerga-egitea da subjektu pasiboak Partzuergoari eskaria egin izatea, honek 15. B eta 15. C artikuluetan jasotako arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraitzeko zerbitzua eman diezaion.

III. KAPITULUA.- SUBJEKTU PASIBOAK

16. artikulua - Subjektu pasiboak, oro har

1. Oro har, Ordenantza Fiskal honetan arauturiko tasen zerga-betebeharpekoak dira uraren ziklo osoko zerbitzuen azken hartzaileak, zerbitzua arautzeko Ordenantzan erabiltzailatzat definitzen direnak, hain zuzen ere.
2. Zergapeko gisa, subjektu pasiboak izango dira pertsona fisiko eta juridikoak, eta Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arauko 34.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak, uraren ziklo osoa osatzen duten eta Ordenantza Fiskal honen xede diren zerbitzuak ematea eskatzen dutenean, haien onuradun gertatzen direnean edo halakoek eragiten dietenean.
3. Bestalde, zergapekoen ordezkoko gisa, subjektu pasiboak izango dira pertsona fisiko eta juridikoak, eta Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arauko 34.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak, uraren ziklo osoa osatzen duten eta Ordenantza Fiskal honen xede diren zerbitzuek eragindako higiezin jabeak direnean, bai eta eraikitzaileak eta obra-kontratatistak ere, tasaren sortzapena obrak egiteari loturik dagoen kasuetan.
4. Hala zergapekoa nola zergapekoaren ordezkoa ordaintzera beharturik daude, zordun nagusi gisa. Tasaren likidazioa egiten eta zuzentzen zaion zergapekoak edo zergapekoaren ordezkokoak ordaindu beharko du zerga-zorra, zergapekoak edo zergapekoaren ordezkokoak eginiko eskaera gorabehera, halakorik egin badu.

17. artikulua – Ur-horniduraren tasa

Ur-horniduraren tasaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

- a) Zergapeko gisa, hornidura-kontratuaren eskatzailea edo titularra edo, bestela, hornidura helarazten zaion higiezinoko legezko okupatzailea edo haren erabiltzailea.
- b) Zergapekoaren ordezkoko gisa, hornidura-kontratua lotzen zaion higiezinaren jabea edo, bestela, hornidura helarazten zaionarena.

18. artikulua - Saneamendu Tasa

Saneamendu tasaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

Zergapeko gisa, ur-hornidurako kontratuaren eskatzailea edo titularra edo, bestela, zerbitzu horren erabiltzailea, uraren ziklo osoaren kudeaketak isurketak tratatzeko egin eta abian jar daitezela eskatzen duelako eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eremuko saneamendu sistemaren onuradun gertatzen delako. Saneamendu zerbitzuaren prestazioa banakakoa denean, horretarako izenpeturiko kontratuaren eskatzailea edo titularra edo kontratu horri loturiko higiezinoko legezko okupatzailea edo haren erabiltzailea.

Zergapekoaren ordezkoko gisa, ur-hornidura lotzen zaion higiezinaren jabea, uraren ziklo osoaren kudeaketak isurketak tratatzeko egin eta abian jar daitezela eskatzen duelako eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eremuko saneamendu sistemaren onuradun gertatzen delako.



19. artikulua - Hornikuntza Hartuneak Betearazteagatiko Tasa

Honako hauek izango dira Hartuneak Betearazteagatiko Tasaren subjektu pasiboak:

- a) Zergadun moduan, hartunearen eskatzailea, edo, hala badagokio, eraikuntzen sustatzailea, hau da, higiezinaren jabea.
- b) Zergadunaren ordezeko moduan, kontratista edo eraikitzailea, sustatzaileak eraikuntza-egitasmoa betearazteko agindu badio.

20. artikulua - Hornikuntza Kontagailuen Tasak

Honako hauek izango dira Kontagailuen Tasen subjektu pasiboak:

- a) Zergadun gisa:

Kontagailuak hornitu eta ordezteak: kontagailuaren eskatzailea.

Kontagailuen alokairua: alokairu erregimenean egongo den kontagailuaren hornikuntza-kontratuaren titularra.

Kontagailuak muntatu eta desmuntatzea, kontserbatu eta egiaztatzea, bai eta kokalekua aldatzea eta ikuskaritza egitea ere: kontagailuarekin lotuta dagoen zerbitzuko kontratuaren titular erabiltzailea.

- b) Zergadunaren ordezeko moduan, suposamendu guztietan, kontagailua atxikitako edo berak aipatutako higiezinaren jabeai.

20 bis artikulua - Titulartasunaren alta, baja eta aldaketen administrazio tasak

Subjektu pasibo izango dira honako hauek:

1. Zergapeko gisa, horniduraren eskatzailea edo, bestela, hornidura helarazten zaion higiezinako legezko okupatzailea edo haren erabiltzailea.
2. Zergapekoaren ordezeko gisa, hornidura lotzen zaion higiezinaren jabea edo, bestela, hornidura helarazten zaionarena.

21. artikulua - Banaketa-sarean lanak egiteagatiko eta obra partikularren ondorioz zerbitzuak emateagatiko Tasa

Banaketa-sarean lanak egiteagatiko eta obra partikularren ondorioz zerbitzuak emateagatiko Tasaren subjektu pasiboak izango dira:

- a) Zergapeko gisa:

- Hala instalazioen gehikuntza edo aldarazpena nola industrialde edo urbanizazio berrien hornikuntza kasuetan banaketa-sarearekiko konexio berria egiteko eskatu dutenak.
- Obrak betearazi ahal izateko ur-mozketak egiteko bidezko baimena eskatzen dutenak

- Euren jabetzako elementuak lehengoratu, konpondu edo ordeztu beharra eduki arren Partzuergoa denean, presazko arrazoiengatik, utzikeriagatik edo hirugarrenen gaineko eraginengatik, horiek egiten dituen
- b) Zergapekoaren ordezeko gisa, kasu guztietan, ur horniduran etena izango duen higiezinaren jabeak.

21bis. Artikulua – Arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraitzeko lanengatik tasa

Tasaren subjektu pasibo izango dira honako hauek:

- a) Zergadun gisa, hustuketaren, garbiketaren eta hondakinak HUAra eramateko lekualdaketaren xede izango den hobi septikora egindako isuriak sortu dituen ur horniduraren kontratuaren eskatzailea edo titularra.
- b) Zergaunaren ordezeko gisa, hustuketaren, garbiketaren eta hondakinak HUAra eramateko lekualdaketaren xede izango den hobi septikoaren erabilera eta isuria lotuta dituen higiezinaren jabea.

IV. KAPITULUA: ZERGAPETZEAREN OINARRIAK

22. artikulua - Zerga-oinarria oro har

Tarifa desberdinak ezarri beharreko magnitude gisa eratzten diren parametro desberdinek osatzen dute Ordenantza Fiskal honetan araupetutako tasa bakoitzarentzako zerga-oinarria, kapitulu honetako ondorengo artikuluetan zehazten den bezala.

23. artikulua - Ur Hornikuntza Tasa

1. Zerga-oinarria osatzen duten magnitudeak ondokoak dira:
 - 1.1 ura hornitzeko kontagailuaren kalibrea, mota eta helburuaren arabera.
 - 1.2 hornitutako etxebizitza, lokal edo antzekoen erabilerak, kontagailuak kontrolatzen dituen kontsumoekin.
 - 1.3 kontsumitutako uraren bolumena, erabileraren edo helburuaren arabera.
2. Kontagailuaren kalibreak zerga oinarrian zenbatzen dira, eta moten arabekoak dira:
 - 2.1. Hornidurak banakako kontagailuarekin: diametroak zehazten duen kalibrea, milimetrotan adierazita.
 - 2.2. Hornidurak ur hotzeko kontagailu orokorarekin eta baita sute-harguneak ere. 15 milimetroko kalibrea.
 - 2.3. Hornidurak ur beroko kontagailu orokorarekin: diametroak zehazten duen kalibrea, milimetrotan adierazita.
3. Zerga-oinarria osatzen duten hornitutako etxebizitza, lokal eta erabilera kopurua hauxe da:



- 3.1. Hornidurak banakako kontagailuarekin: bat hornidura bakoitzeko.
 - 3.2. Hornidurak ur hotzeko kontagailu orokorarekin: kontratuari lotzen zaizkion bezainbeste.
 - 3.3. Hornidurak ur beroko kontagailu orokorarekin: bat hornidura bakoitzeko, hornidura bakoitzari lotzen zaizkion elementuak gorabehera.
4. Zerga-oinarrian ondoko ur bolumenak zenbatzen dira:
- 4.1. Lehen mailako sarearen hornidurak: kontsumitutako uraren bolumena, metro kubikotan adierazita. Urtean gutxieneko kontsumoa egongo da, kontsumo hori gauzaten den ala ez kontuan hartu gabe.
 - 4.2. Bigarren mailako sarearen hornidurak: kontsumitutako uraren bolumena, metro kubikotan adierazita.

Ureztaketa-hartuneetarako, zisterna-ibilgailuetako eta antzeko horniduren kasuan (15 egunetik beherako iraupenarekin), aldez aurretik finkatutako bolumen bat aplikatzen da egunero.

5. Uraren horniduraren tasagatiko zerga moduan ordaindu beharreko zenbatekoa zerga-oinarria osatzen duten magnitudeen gaineko tarifak aplikatuz dator.

Tarifa horiek binomialak dira, eta, beraz, honakoak gehitu beharrak zehazten du tasa:

- a) gorako kopurua, kontagailuaren kalibrearen arabera, hornitutako etxebizitza, lokal eta erabilera antzekoen kopuruagatik biderkatua. Kontagailuak berak kontrolatzen ditu.
- b) kopuru aldakorra, uraren kontsumoen arabera ezarrita. Kontsumoak zatitan banaturik daude, eta horien zenbateko unitarioak hornidurarekin lotutako erabilera ezberdinen arabera ezberdindurik daude.

Ur hotzeko kontagailu orokorrak dituzten kontratuetan, kontsumitutako uraren bolumen osoa hornitutako etxebizitza, lokal eta antzeko erabileratarako artean hainbanatuko da, kontsumo tarte ezberdinak zehazteko.

6. Partzuergoak loturako instalazioen kontagailu bakarra aintzat hartuz fakturatuko du. Erabiltzaile bakoitzaren fakturazioa instalazio hartzaile eta banaketarako instalazioen kontagailuetan erregistratuko neurketen arabera egingo da.

Instalazio hartzaile eta banaketarako instalazioak titulartasun publikoa izatera pasatuko balira, banakako kontagailuen neurketak aintzat hartuz fakturatuko litzateke.

24. artikulua - Saneamendu tasaren zerga-oinarria

1. Zerga-oinarria osatzen duten magnitudeak hauek dira:
 - a) Isurtzekoa izan daitekeen ur-bolumena, jatorriaren arabera.
 - b) Kutsadura-karga.
 - c) Ur-hornidurako kontagailuaren kalibrea, motaren eta helburuaren arabera.

- d) Kontagailu horrek kontrolaturiko hornidura jasotzen duten eta isurketak sortzen dituzten etxebizitzek, lokalen –edo pareko erabileratzat jo daitezkeen– kopurua.
2. Isurtzekoa izan daitekeen ur-bolumena, zerga-oinarria zehazteko erabiltzen dena, ondorengoa da, haren jatorria erabiltzailearen arabera ezarrita:
- 2.1 A motako eta B motako erabiltzaileak, BBUPen saneamenduari buruzko Ordenantzan jasoriko sailkapenaren arabera: hornitutako ur-bolumena, m³-tan adierazia.
- 2.2 Baliabide propioetatik datozen etxeko isurketen kasuan: bolumen finko bat, m³-tan adierazia.
- 2.3 Ur-ahoetatik, zisterna-ibilgailuetatik eta parekotzat jo daitezkeen jardueretatik egiten diren horniduren kasuan, hornidura hamabost egunetik beherakoa denean, aurrez finkaturiko bolumen bat aplikatzen da eguneko.
- 2.4 B motako erabiltzaileek obretako jariatze-uretatik edo drainatzetik datozen isurketak egiten dituztenean, kolektorera isurtzeko baimena onarturik dutenean: isuritako ur-bolumena, m³-tan adierazia.
- 2.5 C motako erabiltzaileak, Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arautzeko Partzuergoaren Ordenantzan jasoriko sailkapenaren arabera: isuritako ur-bolumena, m³-tan adierazia.
3. Zerga-oinarriaren barnean sartzen den zama kutsatzailea hurrengo parametroak aplikatuz, kg-tan adierazita, ezartzen da: m³-tan adierazitako emaria eta gehiegizko Oxigeno Eskari Kimikoa, Etendurako Solidoak eta Amoniako Nitrogenoa.

Emaria zenbatekoa den jakiteko, azken isurketa neurtuko da edo Kolektorera Isurketen Baimenean aurkeztutako Ur Balantzea egiteko erabilitako irizpideen gaineko estimazioa egingo da, bai eta Isurketen Atalak onartutako urteko azken Balantzearen gaineko estimazioa ere.

Azken isurketaren bolumena emari-neurgailu bidez zehazten denean, isurketaren titularrak neurgailua kalibratzeko edo egiaztatze programara bat ezarri beharko du, gutxienez urtebeteko maiztasunarekin; programa Partzuergoak onartu behar du.

Kalibraketa edo egiaztapen horiek dagokion ziurtagiriaren bidez erregistratu behar dira; egiaztapena kalibraketa egiten duen enpresak egin behar du, eta, zentzu horretan, kalibraketaren emaitzek emari-neurgailuaren fabrikatzaileak zehaztutako espezifikazio teknikoak betetzen dituen adierazi beharko du.

Oxigeno Eskari Kimikoa (OEK), Solido Etekiak (SE) eta Nitrogeno Amoniakala (N-NH₃) izeneko karga kutsagarriak zehazteko, oro har, azken isurketako emaitza analitikoaren batez besteko balioa finkatuko da, egiaztapena egin baino lehenagoko sei analisiak kontuan hartuta. Hilabete baino txikiagoko kontrol maiztasuna duten enpresentzat, batez besteko balioa azken hiru analisisien batez bestekoaren arabera kalkulatu da. Batez besteko balioa Isurketen Atalak finkatuko du, eta gehiegizko karga kutsagarria eta saneamendu tasaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiliko da.

Kutsaduraren batez besteko estimazioa kalkulatzeko, enpresek egindako autokontroletako balioak erabili ahal izango dira, baldin eta Partzuergoak onartu baditu eta metodo analitikoaren ordezkarritasunaren, maiztasunaren eta bermearen arabera balioztatu baditu. Metodo analitikoak IV. eranskinean definitzen direnak izango dira.



Gehiegizko karga kutsagarria Saneamendu Sistema berrirako estimatutako batez besteko kontzentrazioekin konparatuta kalkulatzen da; honela, hain zuzen ere:

Cmo: materia organikoaren koefizientea: 900 mg O₂/l OEK

Cms: guztirako solidoen koefizientea: 675 mg/l GSE

Cmn: nitrogeno amoniakalaren koefizientea: 54 mg/l N-NH₃

- 3.1 Fakturaziorako finkatutako kutsaduraren batez besteko balioa erreferentziako kontzentrazioaren balioa baino handiagoa denean, gehiegizko karga kutsagarria honela kalkulatuko da:

OEKen fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa Cmo baino handiagoa bada,

$$\text{Gehiegizko OEK kg} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (\text{OEK mg O}_2/\text{l} - \text{Cmo mg O}_2/\text{l fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa})/1.000$$

GSEren fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa Cms baino handiagoa bada,

$$\text{Gehiegizko GSE kg} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (\text{GSE mg/l} - \text{Cms mg/l fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa})/1.000$$

N-NH₃en fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa Cmn baino handiagoa bada,

$$\text{Gehiegizko N-NH}_3 \text{ kg} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (\text{N-NH}_3 \text{ mg/l} - \text{Cmn mg/l fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa})/1.000$$

- 3.2 Fakturaziorako finkatutako kutsaduraren batez besteko balioa erreferentziako kontzentrazioaren eta etxeko hondakin uren ohiko balioaren artean dagoenean, karga kutsagarria modu honetan murriztuko da:

OEK fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa Cmo baino txikiagoa bada baina etxeko OEK kutsadurari dagokion 500 mg O₂/l baino handiagoa bada.

$$\text{OEK kg murrizketa} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (\text{OEK mg O}_2/\text{l} - \text{Cmo mg O}_2/\text{l fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa})/1.000$$

GSE fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa Cms baino txikiagoa bada baina etxeko GSE kutsadurari dagokion 450 mg/l baino handiagoa bada.

$$\text{GSE kg murrizketa} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (\text{GSE mg/l} - \text{Cms mg/l fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa})/1.000$$

N-NH₃ fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa Cmn baino txikiagoa bada baina etxeko N-NH₃ kutsadurari dagokion 40 mg/l baino handiagoa bada.

$$\text{N-NH}_3 \text{ kg murrizketa} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (\text{N-NH}_3 \text{ mg/l} - \text{Cmn mg/l fakturaziorako finkatutako kontzentrazioa})/1.000$$

- 3.3 Fakturaziorako finkatutako kutsaduraren batez besteko balioa etxeko hondakin uren ohiko balioa baino txikiagoa denean, karga kutsagarria modu honetan murriztuko da:

$$\text{OEK kg murrizketa} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (500 \text{ mg O}_2/\text{l} - \text{Cmo mg O}_2/\text{l})/1.000$$

$$\text{GSE kg murrizketa} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (450 \text{ mg/l} - \text{Cms mg/l})/1.000$$

$$\text{N-NH}_3 \text{ kg murrizketa} = \text{m}^3 \text{ emaria} * (40 \text{ mg/l} - \text{Cmn mg/l})/1.000$$

4. Kontagailuaren kalibreak zerga oinarrian zenbatzen dira, eta moten arabekoak dira:
 - 4.1 Banakako kontagailuak kontrolatutako horniduretatik datozen isuriak: diametroak zehazten duen kalibrea, milimetrotan adierazita.
 - 4.2. Ur hotzeko kontagailu orokorrak kontrolatutako horniduretatik datozen isuriak, eta baita sute harguneak ere: 15 milimetroko kalibrea.
 - 4.3.- Ur beroko kontagailu orokorrak kontrolatutako horniduretatik datozen isuriak: diametroak zehazten duen kalibrea, milimetrotan adierazita.
 - 4.4. Baliabide propioetatik datozen etxeko isuriak: 15 milimetroko kalibrea.
5. Isuriak sortzen dituzten etxebizitza, lokal eta erabilera kopurua eta zerga-oinarria osatzen duena hauxe da:
 - 5.1 Banakako kontagailuak kontrolatutako horniduretatik datozenak: bat hornidura bakoitzeko.
 - 5.2 Ur hotzeko kontagailu orokorrak kontrolatutako horniduretatik datozenak: kontratuari lotzen zaizkion bezainbeste.
 - 5.3 Ur beroko kontagailu orokorrak kontrolatutako horniduretatik datozenak: bat hornidura bakoitzeko, hornidura bakoitzari lotzen zaizkion elementuak gorabehera.
 - 5.4 Baliabide propioetatik datozen etxeko isuriak: 15 milimetroko kalibrea.
6. Ur saneamenduaren tasagatiko zerga moduan ordaindu beharreko zenbatekoa zerga-oinarria osatzen duten magnitudeen gaineko tarifak aplikatuz dator.

Tarifa horiek binomialak dira, eta, beraz, honakoak gehitu beharrak zehazten du tasa:

- a) gorako kopurua (F), kontagailuaren kalibrearen arabekoa, isuriak sortzen dituzten etxebizitza, lokal eta erabilera antzekoen kopuruagatik biderkatua. Kontagailuak berak kontrolatzen du hornidura (V).
- b) kopuru aldagarria, ondokoei gehitzetik sortua:
 1. Isuritako emariaren zenbatekoari (B), ur isurien arabera ezarrita. Isuriak zatitan banaturik daude, eta horien zenbateko unitarioak hornidurarekin lotutako erabilera ezberdinen arabera ezberdindurik daude.
 2. Gehiegizko zama kutsatzailearen zenbatekoa (R).

Ondorioz, Saneamendu Tasaren zenbatekoa hauxe izango da $= (F \times V) + (B + R)$

- 6.1 Isuritako emariari (B) dagokionez, m^3 -n adierazitako isuritako emarien balioari zenbatekoa eurotan aplikatuz kalkulatu da, dagokien isurien ataletako m^3 bakoitzeko.

Ur hotzeko kontagailu orokorrak dituzten kontratuetan, isuritako uraren bolumen osoa hornitutako etxebizitza, lokal eta antzeko erabileratarakoen artean hainbanatuko da, tarifa aplikagarrien tarte ezberdinak zehazteko.
- 6.2 Gehiegizko karga kutsagarriari dagokionez, eta behin OEK, GSE eta N-NH3 kg-ko prezioak finkatuta, hauxe izango da bere zenbatekoa:



Gehiegizko OEK tasa edo OEK murrizketaren tasa:

Karga Kutsagarria (Ro)= OEK kg x OEK kg bakoitzeko tarifaren euroak.

Gehiegizko GSE tasa edo GSE murrizketaren tasa:

Karga Kutsagarria (Rs)= GSE kg x GSE kg bakoitzeko tarifaren euroak.

Gehiegizko N-NH3 tasa edo N-NH3 murrizketaren tasa:

Karga Kutsagarria (Rn)= N-NH3 kg x N-NH3 kg bakoitzeko tarifaren euroak.

R terminoaren balioa modu honetan kalkulatu da: $R = R_o + R_s + R_n$,

6.3 Erreferentziakoak baino txikiagoak diren kontzentrazioak isurtzen dituzten eta saneamenduaren fakturazioan kenkariak dituzten enpresek Partzuergoari eskatu beharko diote deskontuak aplikatzeko. Deskontuak gauzatu daitezzen, baldintza eta betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Enpresak idatziz egin beharko du karga kutsagarriaren murrizketagatiko kenkariaren onuraduna izateko eskaera. Eskaerarekin batera, saneamendu sarean egiten diren isurketen autokontrolerako programa erantsi beharko da. Isurketak bi motatakoak izan daitezke:

Kontrol analitikoak: hileroko fakturazioa duten industrien kasuan, gutxienez, bi laginen analitikoak jaso beharko dira bertan; eta hiru hileroko fakturazioa dutenen kasuan, berriz, 3 lagin aurkeztu beharko dira. Laginak 24 orduan egindakoak izango dira, eta esanguratsuak izan beharko dira produkzio prozesuari dagokionez. Zehaztapen analitikoak ENACek egiaztatutako laborategi batek egingo ditu, eta emaitzak Partzuergoari bidaliko dira. Karga kutsagarria emaitza horien bidez eta Partzuergoari egiten dituen kontrolen bidez zehaztuko da, eta aipatutako emaitza eta kontrolek Kolektorerako Isurketen Baimenean ezarritako betebeharrak betetzen ote diren egiaztatzeko balioko dute.

Telekontrola: enpresa onuradunaren kargura, Partzuergoari onartutako gailuak instalatzea, emariari eta isurketaren kalitateari buruzko datuak neurtu, gorde eta Partzuergoari telekomunikatzeko, denbora erreal eta jarraituan. Gailu automatikoak aldi berean behin eta era egokian kalibratu eta mantenduko dira.

b) Enpresa eskatzaileak behar bezala izan beharko ditu ordainduta hornidura eta saneamendu zerbitzuak.

c) Fakturazioaren xede den aldiaren, enpresak beteta izan beharko ditu Kolektorerako Isurketen Baimenean ezarritako baldintzak.

6.4 Lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrek kaltetutako enpresei karga kutsagarriagatiko eta mailakakotasunagatiko deskonturik handienak baino ez zaizkie aplikatuko.

6.5. Saneamendu tasaren ordainarazpen zuzenak karga kutsagarri desberdina duten industrietan eragindako kontsumoen indibidualizazioa eskatzen du. Ondorioz, arau orokor gisa, industrialdeetan ur horniketa kontagailu orokor bidez egongo da neurtuta, eta, honen bidez, hornitutako bolumen osoaren eta industria bakoitzeko kontagailu indibidualen jasotako bolumen metatuen arteko aldeagatiko tasak likidatuko dira.

Horrela, industria horietako bakoitzaren eta euren karga kutsagarriaren kontsumoari dagozkion tasen likidazio indibidualizatua egin ahal izango da.

25. artikulua - Egiaztapengatiko kitapenerako eta kontagailuen matxura edo akatsengatiko araupetzerako suposamenduak, Ur Hornikuntza eta Saneamendu Tasetan

1. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan adierazitakoa gorabehera, kontagailua eskuetsitakoa baino handiagoa den akats positiboaz dabilela egiaztatzen den suposamenduetan, edo, oro har, kontagailuen akatsa edo matxura ematen den kasuetan, jarri zen egunetik hasi eta ondorengo hogeita hamar egunetan kontagailu berriaren bidez egindako kontsumoak izango dira zerga-kuota zehazteko asmoz tarifak ezarri beharreko magnitudea. Kitapenak atzera jo behar du eta hilabete horietan indarrean zeuden tarifak ezarriko dira.
2. Atzera jotzeko aldi hori ezin izango da inolaz ere izan sei hilabetetik gorakoa.
3. Era berean, saneamenduko zerga-egitatea hornitutako ur-bolumenaren arabera zehazten denean ere ezarri ahal izango da.

Isuritako emaria zuzenean zehaztea ezinezko egiten duten baldintzak daudenean, isuritako uren kopurua zehazteko zenbatespena egingo da, betiere, hornikuntza iturrien kontsumoen, prozesuan erabilitako uren eta aurreko urteko ur-balantzearen arabera.

26. artikulua - Barruko instalazioetako ezusteko matxuretarako suposamendua, Ur Hornikuntza eta Saneamendu Tasetan

1. Barrualdeko instalazioetan erabiltzailearen ohiko kontsumoen bolumena andeatzen duten matxurak daudela egiaztatuz gero, Partzuergoak ohiko batez bestekoa gainditzen duen kontsumoa hiruhileko 25-75 m³ tarterako ezarritako prezioan fakturatuko du, etxeko erabiltzaileak badira. Prezio bera ezarriko da saltokiak, industria keta bestelakoak epigrafean.

Hau guztia gorabehera, tasan ordaindu beharko den amaierako zenbatekoa ezin da izan kontuan hartuko den urtearen hiruhileko berean egin diren azkeneko bi likidazioen batez bestekoaren % 800 baino gehiago:

Hobariak bakarrik aplikatu daitezke gehienez hiruhileroko bi likidazioen gainean.

Aldi berean, ustekabeko matxurengatiko hobariaren eskabidea bakarrik onartzen da gutxienez barruko instalazioetan ihesik ez dagoela egiaztatzen duten hiruhileroko hamabi likidazio egin ondoren.

Kontagailu orokorren kasuan, atal honetan aipatzen den murrizketa matxura Erkidegoaren instalazio orokorrean gertatzen denean aplikatuko da soilik.

2. Irizpide berberak aplikatu dira saneamenduaren zerga-oinarria isuritako uraren bolumenak zehazten duenean, edo isuriaren emari-neurgailuaren bitartez zehaztuz.



27. artikulua - Hornikuntza Hartuneak Betearazteagatiko Tasa

Kalibrearen eta luzeraren eta elikatzen duen hodiaren diametroaren eta materialaren arabera zehaztuko da hartuneen tarifa, Zerbitzua Araupetzen duen indarreko Ordenantzak zehaztutakoaren arabera.

Zerga Ordenantza honetako 1. eranskinean jasotzen da hartune-mota bakoitzarentzako tarifa hori.

28. artikulua - Hornikuntza Kontagailuen Tasak

Honako magnitude hauek osatuko dute Kontagailuen Tasen zerga-oinarria:

- a) *Kontagailuak Hornitzea eta Aldatzea*: kontagailuaren kalibreak adierazten du tarifa ezarri beharreko magnitudea, eta haren gainean tarifa finkoa ezartzen da.
- b) *Kontagailuak Alokatzeta*: kontagailuaren kalibreak adierazten du magnitudea, eta haren gainean tarifa finkoa ezartzen da.
- c) *Kontagailuak Instalatu eta Jaso, Berrikusi, Lekuz aldatu eta Ikuskatzeko Jarduera*: kontagailuaren kalibreak adierazten du magnitudea, eta haren gainean tarifa finkoa ezartzen da.
- d) *Kontagailuak Zaintzeko Jarduera*: kontagailuaren kalibreak adierazten du magnitudea, eta haren gainean tarifa finkoa ezartzen da.
- e) *Kontagailuak Egiaztatzeko Jarduera*: kontagailuaren kalibreak adierazten du magnitudea.

28 bis artikulua - Titulartasunaren alta, baja eta aldaketen tasak

Alten, bajen eta titulartasun aldaketen tasaren tarifa oroharreko zenbateko gisa definituta dago ordenantza fiskal honen 1. eranskinean.

29. artikulua - Banaketa-sarean lanak egiteagatiko eta obra partikularren ondorioz zerbitzuak emateagatiko Tasa

Ur horniduran etenak egin eta hornidura berrezartzeagatiko –partikular baten interesagatik- tarifa ur hornidura etenda egon behar den denborak zehaztuko du.

Egon dagoen sarearekiko konexioak egiteko tarifak konexio horretan erabiliko diren T motako konexioen, briden eta uhate-giltzen unitateen kopuruaren arabera ezarriko dira, eta baita horien diametroa kontuan hartuta ere.

29 bis. Artikulua - Arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraitzeko lanengatiko tasa

Tasa honen kontzeptupean exijitzen den tarifa lohien hustuketa, garbiketa eta lekualdaketa zerbitzua zuzen emateko kamioiak egin beharreko desplazamendu edo bidaien arabera zehazten da; horrez gain, aipatutako hobi septikora isurtzen duten etxebizitza kopurua (etxebizitzetako isuri kasuan) ere hartuko da kontuan, bai eta fosaren edukiera ere (isuri industrialen kasuan).

Ondorioz, tarifei buruzko eranskinean zehazten den arabera hobaria izango dute aldi berean eskatu iren zerbitzuek, Partzuergoaren beraren iritziz, kamioi-biaia berean gauzatu daitezkeen hobi septiko ezberdinen garbiketa-zerbitzuen kasuan.

V. KAPITULUA: ZERGA-KUOTA

30. artikulua - Zerga-kuota

1. Bere zerga-oinarriaren magnitudeari Ordenantza honen Eranskinean sailkatutako tarifak ezartzetik, edo, hala badagokio, zuzenean ezartzetik sortutako emaitzak osatuko du Ordenantza Fiskal honetan artikulatutako tasa guztien zerga-kuota.
2. Emaitzako zerga-kuotaren gainean, hala badagokio, zeharkako zergak ezarriko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zerga hain zuzen ere, arlo horretan ezarri daitezkeen arautegiak zehaztutako baldintzetan.

VI. KAPITULUA: TASEN APLIKAZIOA: KUDEAKETA, KITAPENA ETA BILKETA

LEHENENGO ATALA.- SORTZAPENA

31. artikulua - Sortzapena oro har

1. Ordenantza Fiskal honen helburu diren tasak sortuko dira, zerga-betebeharra agertuz, bakoitzaren zerga-egitatea dakarren jarduerari hasiera ematen zaionean.
2. Zerbitzuko baja bideratu den eguna hartuko da azken sortzapen-eguntzat, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako baldintzetan, edo Isurketa Dispentsa egin den eguna.

32. artikulua - Ur Hornikuntza Tasa

1. Ur Hornikuntza Tasa hornidura-kontratua sinatzeko orduan sortuko da, eta, besterik ezean, hornikuntzaren hasieratik.
2. Hornidura ezarrita eta abian jarrita, tasa hori egunero sortuko da, eta zergaldi bezala zehazten diren tarteetan kitatuko dira. Horren ondorioz, tarifa-azalpen finkoak "eguna" unitatearen arabera hainbanatuko dira.

33. artikulua - Saneamendu tasaren sortzapena

1. Saneamendu tasa, ur-hornidurako zerbitzuaren osagarria izanik, Hornikuntza Zerbitzua Arautzeko Ordenantzako 6. eta 13. artikuluetan arauturikoaren ildotik, zerbitzuaren kontratua formalizatzen den unean sortzen da edo, bestela, zerbitzu hori gertatzen den unetik.



2. Saneamendu zerbitzuaren prestazioa banakakoa denean, erabiltzaileei ematen zaien hornikuntza zerbitzuari buruzko Ordenantzako 13. artikulua ildotik, saneamendu tasa sortzen da isurketa-baimena formalizatzen den unean edo, bestela, isurketa egiten den unetik.
3. Ur hornikuntza edo isurketa finkatu eta funtzionamenduan dagoela, tasa egunero sortzen joango da, eta likidazioa zergaldi gisa definitzen diren denbora-tarteei jarraiki egingo da. Ondorioz, tarifetako kontzeptu finkoak proportzionalki banatuko dira, "egun" unitatearen arabera.

34. artikulua - Hornikuntza Hartuneak Betearazteagatiko Tasa

Hartuneak Betearazteagatiko Tasa hartunearen esleipena eskatzean sortuko da, edo, besterik ezean, hartunea bera betearazteko orduan.

35. artikulua - Lehen mailako saneamendu sarean zuzeneko hartuneak egiteari dagokion tasaren sortzapena

Lehen mailako saneamendu sarean zuzeneko hartuneak egiteari dagokion tasa sortzen da halakoa eskatzean edo, bestela, gauzatzen den unean.

36. artikulua - Hornikuntza Kontagailuen Tasak

1. Kontagailuen Tasak hornidura edo zerbitzu-prestazioa eskatzean sortuko dira, edo, besterik ezean, tresna hornitzean edo harekin lotutako zerbitzua eraginkortasunez ematean.
2. Kontagailua ezarrita edo abian jarrita, Kontagailuen Alokeragatiko Tasa eta Kontagailuak Zaintzeagatiko Tasa, kontagailua atxikitako hornikuntza eta saneamendu zerbitzuengatiko tasen aldizkakotasun berberaz sortuko dira, hau da, egunero, eta zergaldi bezala zehazten diren tarteetan kitatuko dira.
3. Artikulu honetan zerrendatutako tasak aurreko ataletan adierazitako moduan sortuko dira; eta hori, neurketa-tresna eta horri dagokion urruneko irakurketa-elementuak instalatzea eta martxan jartzea ezinezkoa bada ere, subjektu pasiboak indarrean dauden ordenantzetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituelako.

36 bis artikulua - Titulartasunaren alta, baja eta aldaketen tasak

Alta, baja eta titulartasun aldaketen tasak titulartasuna altan eman, bajaran eman edo aldatzeko eskabideak izapidetzen direnean sortzen dira; ofiziozko jarduketan kasuan, aldiz, jarduketak burutzen direnean.

37. artikulua - Banaketa-sarean lanak egiteagatiko eta obra partikularren ondorioz zerbitzuak emateagatiko Tasa

Banaketa-sarean lanak egiteagatiko eta obra partikularren ondorioz zerbitzuak emateagatiko Tasa lanak egiteko eskaera egitean sortzen da, edo, hala badagokio, Partzuergoak lanak egiten dituenean.

37bis. Artikulua - Arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraitzeko lanengatiko tasa

Subjektu pasiboak eskaria egiten duen momento horretan ematen da tasaren sortzapena. Hain zuzen ere, horrek kausatu egiten bait du Partzuergoaren jarduketaren hasiera zerbitzua modu egokian emateko eta zenbatekoa zehaztu ahal izateko.

Ondorioz, tasa ordaintzeko beharkizuna Partzuergoaren jarduera hasten denetik sortzen da.

Partzuergoan dirua zuzenean sartuz ordainduko da, benetan hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraitzeko zerbitzua burutu aurretik, I. eranskinean ezarritako tarifyan adieraziriko zenbatekoaren arabera.

Tasa ordaintzera behartuta dagoenari ezin egotz dakizkiokeen kausak direla eta zerbitzua ematen ez bada, bidezkoa izango a zenbatekoa itzultzea.

BIGARREN ATALA.- ZERGALDIA

38. artikulua - Aldizkako sortzapeneko tasetako zergaldia

1. Aldizkako sortzapeneko tasetako zergaldia euren zerga-oinarriak osatzen dituzten magnitudeen ebaluazio-metodoetara egokituko da, hots, kontsumoak edo isurketak dagozkien neurketa-tresnen bidez zenbatekotzeko.
2. Horretarako, fakturazioa hileroko egingo da lehen mailako sareko horniduretarako; eta hogeita hamar (30) egunetik ehun eta hogeita hamar (120) egunera bitarteko aldyan, bigarren mailako sareko horniduretarako. Azken kasu horretan, aldyak eta hiruhilekoak bat egingo dute, ahal bada.
3. Kontagailuak Alokatzeta eta Zaintzeagatiko Tasak, kontagailuak atxikitako ur hornikuntza zerbitzuarengatiko tasen aldykakotasun berberaz kitatuko dira.

39. artikulua – Zergaldia, aldykako sortzapena ez duten hornidura-tasetan

Aldykako sortzapena ez duten tasak sortzen diren unean likidatuko dira, hau da: Partzuergoaren edateko ura banatzeko sareetan zein lehen mailako saneamendu sarean hartuneak egiteari dagozkion tasak, kontagailuz hornitzeari zein kontagailuak ordeztuari dagozkien tasak, eta kontagailuak instalatu (muntatu) eta jaso (desmuntatzeari), kontagailuak egiaztatzeko jarduketak, eta altak, bajak eta titulartasun aldyketak egiaztatzeko administrazio jarduketak, berrikusi, lekuz aldatu eta ikuskatzeko jarduerari dagozkienak

Ur-ahoetatik, zisterna-ibilgailuetatik eta parekotzat jo daitezkeen jardueretatik egiten diren horniduren kasuan, hornidura hamabost egunetik beherakoa denean, kontratua formalizatzen den unean likidatuko dira tasak.

40. artikulua - Tarifyn hainbanaketa

Zergaldi berean tarifa-aldyketaren bat gertatu denean, zerga-oinarri bezala zehaztutako magnitudearen eguneko batez bestekoa eta dagozkien tarifyn indar-egunak biderkatuko dira tasen kuota lortzeko.



HIRUGARREN ATALA.- ZERGA-KUDEAKETAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK

41. artikulua - Tasen likidazioa

1. Ordenantza Fiskal honetan arautzen diren tasen likidazioak artikulua honetako hurrengo idatz-zatietan aurreikusten diren zehaztapenei lotuta egongo dira.
 - a) Lehen mailako sareko ur-horniduraren tasaren likidazioak (albo batera utzirik aldi baterako hartuneak eta banaketa saretik hornitzea ezinezkoa den hornidurak): urte naturaleko azken likidazioaren kontura utziko dira, eta, beraz, likidazio osagarri bati lotuta, urtean kontsumitzen den ur-bolumena lau (4) l/s baino gutxiago bada.
 - b) Zenbatespen-metodoan auzia dakartenak, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzan zehazten den bezala. Behin-behinekoak edo konturakoak izango dira, kontagailuetako benetako irakurketak egin eta hurrengo aldietako emaitzen arabera, preskribatzen ez diren bitartean.
2. Artikulu honen aurreko paragrafoan zehaztutakoari kalterik egin gabe, eta, oro har, kitapenak zerga-oinarriaren aldaketen menpe egongo dira.
3. Kopuruak, emariak edo zerga-oinarri bezala zehaztutako izaera finkoko beste edozein magnitudek edo denbora-unitateak aldeztu aurretik zehaztutako zenbatekoak eragindako zerbitzuak kontratatuz gero, horren ondorioz sortutako tasen aurretiazko kitapena gauzatuko da, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzan aurreikusitako baldintzetan.

42. artikulua - Baterako kudeaketa

Partzuergoak Ordenantza Fiskal honetan araupetutako tasa desberdinak batera kitatu eta bildu ahal izango ditu, betiere, zergaldiek bat egiten badute. Horretarako, guztiak jasoko dituen agiri-euskarri bakarra erabiliko du, azalpen bakoitzaren oinarriak eta tarifak bereizi beharko dituen arren. Izan ere, horien kitapenak banan-banan egingo dira, eta kontzeptu bakoitzari dagozkion kuota berezita agertu beharko dira. Kuota horien batuketak agiri bakarraren bidez ordainarazi beharreko kuota bategina zehaztuko du.

43. artikulua - Fakturazioa erabiltzaileari.

Partzuergoak kapital guztiz porpiodun Merkataritza Sozietate baten esku utzi ahal izango du hornikuntza edo/eta saneamendu zerbitzuen erabiltzaileen fakturazioa, unean-unean indarrean dauden tarifa eta zergak ezarrita. Era berean, Ordenantza Fiskal honetan ezarritako baldintzetan eta epeetarako egingo da fakturazioa

44. artikulua - Familia ugarietako, senitarteko guztiak langabezia dituzten familiei, gutxienezko pentsioak dituzten erretiratu eta pentsiodunei, ongintzako zentroei eta etxeetako bestelako kasu batzuei egindako fakturazioa

1. Familia ugarien ohiko etxeetako kontsumoak dagokienez, laurogeita hamar egunik behin 25 m³tik gorako kontsumoa dagoenean, kopuru hori tarifen epigrafeko kontsumoen lehenengo tartean ezarritako prezioan fakturatuko da.

Interesdunek adierazitakoa eskatu beharko dute, urtero-urtero aurreko paragrafoan jasotakoa bete dutela egiaztatuz.

2. Ohiko etxeetan egindako kontsumoak senitarteko guztiak langabezia dituzten eta beste diru-sarrerarik ez duten familia-unitateetan –edo, diru-sarrera bakar gisa, erretiratuen eta pentsiodunen prestazioa dutenean, gutxieneko pentsioekin–, laurogeita hamar egunik behin 25 m³ -tik gorako kontsumoa dagoenean, kopuru hori tarifen epigrafeko kontsumoen bigarren tartean ezarritako prezioan fakturatuko da.
3. Etxe-erabileretarako hornikuntza, kontagailu banatzailea eta kontagailu orokorra uztartuz egiten denean, laurogeita hamar egunetik behin 25 m³-tik gorako kontsumoak tarifa epigrafeko kontsumoen bigarren tarterako ezarritako prezioan fakturatuko dira; betiere, okupatutako etxebizitza bakoitzaren kontsumoen batuketaren batez bestekoa 75 m³-tik beherakoa bada 90 egunetik behin.

Hornidura bi kontagailu orokor desberdinen bidez egiten bada, erabiltzaileak eskubidea izango du zehazteko zein horniduratan hartuko den kontuan hornitutako etxebizitzaren kopurua, likidatu beharreko kuota finkoa zehazteko; betiere, behin betiko izaerarekin eta erabakiaren aldaketa eskatzeko aukerarik izan gabe.

Interesdunek urtero eskatu beharko dute artikulua honetan xedatutakoa; horretarako, eskaera egin beharko dute, eta eskaera egin den unean okupatuta dauden etxebizitzaren kopuruari buruzko egiaztagiria gehitu beharko dute

4. Ongintzazko zentroek –euren jarduera nagusia pertsonen egoitza izatea denean, betiere– laurogeita hamar egunik behin egindako kontsumoak 25 m³-tik gorakoak badira, kopuru hori tarifen epigrafeko bigarren tartean ezarritako prezioan fakturatuko da.

Tarifa hori aplikatzeko, interesdunak egiaztatu beharko du erakundeak ongintzazko izaera duela, eta zentroaren jarduera pertsonen egoitza izatea dela.

44bis artikulua. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera jasotzen dutenentzako hobari fiskala

1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren jasotzaileak egin dituen etxeko kontsumoengatik ordaindu behar duen saneamendu-tasaren % 80ko hobariaren eskubidea dauka.
2. Hauexek dira onuraduna izateko baldintzak:
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren onuraduna izatea hobariaren eskabidea egiteko irekita dagoen epean.
 - Ohiko etxebizitzan egindako kontsumoak kontagailu bereizi bidez identifikatuta izatea.
 - Eskabidea egiten den unean, erroldatzeari buruzko bolantearen bidez, etxebizitzan bizi diren kideen kopurua egiaztatzea eta egin den kontsumoa jarraian adieraziko diren pertsona eta hiruhileroko metro kubikoen bestekoa edo hortik beherakoa izatea. Horretarako, beharrezkoa litzateke kontagailuaren irakurketa ematea, tasen likidazioa egiterakoan Partzuergoak irakurketa indizea lortu izan ez balu bere kabuz.
 - Pertsona erroldatu bakarria duten etxebizitzak, kontsumoa 16 m³-tik beherakoa izatea 90 egunero.



- Bi pertsona erroldatu dituzten etxebizitzak, kontsumoa 30 m³-tik beherakoa izatea 90 egunero.
 - Hiru pertsona edo gehiago erroldatu dituzten etxebizitzak, bigarren pertsona horretatik gora kontsumoa 30 m³-tik beherakoa izatea gehi 12 m³ gehigarri pertsona bakoitzeko 90 egunero.
- Hornidura-kontratuaren titularra izatea, edo, bestela, kontratuaren titulartasuna higiezinaren jabearen izenean badago, higiezin horretan bizi dela egiaztatzen duen titulua aurkeztea. Hobariaren ondorioetarako, berrakurak eta logelen alokairuak ez dira baliozkotzat joko.
 - Diru sarrerak bermatzeko errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera jaso egiten duen pertsonak osotutako bizikidetzaren unitateaz kanpo, etxebizitza berean bizi diren gainontzeko pertsonen diru sarrerik ez edukitzea.
3. Eskabidea egutegiko urte bakoitzeko urtarrilean eta otsailean egin behar da urte horretako apirilaren 1etik eta hurrengo ekitaldiko martxoaren 31ra arte egingo diren hiruhileroko lau likidazioetan ondorio ekonomikoak izan ditzaten. Ondore horretarako honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Erantsitako formularioa, eskatzaileak sinatuta.
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera jasotzen duela egiaztatzen duen dokumentua.
 - Etxebizitzan bizi diren pertsonen kopurua egiaztatzen duten errolda-orriak.
 - Kontratuaren titularra jabea bada eta eskatzailea errentaria bada, alokairu-kontratuaren edo higiezinaren jabetza-tituluaren fotokopia.
- 2018ko abenduaren 31 aurretik DSBE jasotzeagatik hobariaren onuradunak izan direnek ez dute eskabiderik egin behar 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra arteko urtekorako.
4. Eskatzaileak eskaria egin izan duen urteko Apirilaren 1ean hasi eta hurrengo urteko Martxoaren 31.a arte egin daitezkeen tasa kitapen guztietan hobaria jasotzeko eskubidea izango du agiri berririk edo aurrez aurkeztutako agiririk berritu gabe. Aldi berean, une oro bere iritziz interesgarria izango den informazioa eguneratzeko aukera du.
5. Ur Partzuergoak, halaber, tramitatu edo onetsi egingo ditu horretarako gaitutako epetik kanpo egin diren eskabideak eta horiek ondoreak izango dituzte eskabidea onesteko dataren ostean egin daitezkeen likidaziotik aurrera eta hurrengo urteko martxoaren 31 aurretik egin arte.
6. Aipaturiko bi kasuetan, egutegikoa ez den hurrengo urtekoan hobaria jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da bidezko eskabidea egitea urtarrilean eta otsailean.
7. Hauexek dira hobariaren eskubidetik kanpo geratzeko eta eskubidea galtzeko arrazoiak:
- Eskabide faltsutuak edo datuak ezkututzen dituztenak egitea.
 - Eskatzailearen errolda-datuak eta zorpetutako etxebizitzaren datuak bat ez etortzea.
 - Beharrian ekonomikoa egiaztatuta ez izatea.

- Partzuergoak eskabidea ongitzeko edo dokumentazioa aurkezteko egiten dituen errekerimenduei kasurik ez egitea.
- Ordenantza honetan edo Hornikuntza Zerbitzua Arautzeko Ordenantzan arau-hausteren bat edo ez betetzeren bat egiteabesteak, beste, hornikuntza-kontratuaren formalizazioa falta izatea; horren arabera Ur Partzuergoak ofizioz egiten dituen alten behin behineko eta/edo behin betiko likidazioak ezin izango dira hobarien xede izan

45. artikulua - Betebehar formalak

Tasak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek, Ordenantza Fiksla honetako III. kapituluaren zehazten diren bezala, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzan aurreikusitako baldintzetan eta ezarri daitezkeen bestelako xedapenen arabera burutu behar dituzte zerbitzuetako alta eta baja aitortpenak. Horrez gain, izaera formaleko datuei buruzko edozein aldaketaren berri eman beharko dute, ezinbestekoak izan daitezkeelako Ordenantza Fiskal honen helburu diren tasak kudeatu, kitatu eta biltzeko. Era berean, euren gain hartuko dituzte hutsegiteak edo gaizki jakinarazteak eragindako ondorioak.

LAUGARREN ATALA.- TASEN BILKETARAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK

46. artikulua - Ordaintzeko borondatezko epea

Ordenantza Fiskal honetan araupetutako tasa guztiak kitapena jakinarazi zenetik hasi eta hogeita hamar eguneko epean ordainduko dira.

47. artikulua - Aldi betearazlea

Aurreko artikuluan zehaztutako borondatezko epean ordaindu ezean, aldi betearazlea irekiko da, eta premiamendu-bidezko ordainarazpena.

48. artikulua - Ordaintzeko moduak

1. Ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuen prestazioak emategatik sortutako tasen zergazorrak honako eran kitatu ahal izango dituzte ordaindu behar dutenek:
 - a) Edozein banku-erakunde edo aurrezki kutxatan helbideratuta.
 - b) Posta igorpen bidez edo Partzuergoaren banku-kontuan sartuta, ordainketaren xedea den likidazioa identifikatuz.
 - c) Legeak onartzen duen beste edozein eratan.
2. Partzuergoak esku-dirutan egiten diren likidazioen ordainketa eskatu ahal izango du, hurrengo kasuetan:
 - a) a) Hornikuntzako baja eskatzean sortzen diren amaierako likidazioak.
 - b) b) Borondatezko epeetik at ordain daitekeen edozein likidazio.



VII. KAPITULUA: ZIGORTZEKO AHALMENA

LEHENENGO ATALA.- ZERGA ARAU-HAUSTEAK

49. artikulua - Kontzeptua

Bizkaiko Lurralde Historikorako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta gainerako xedapen aplikagarrietan izaera horrekin aurreikusita eta horrela zigortutako edozein arduragabekeria maila duten engainuzko edo erruzko ekintza edo ez-egiteak hartuko dira zerga arau-haustetzat, Ordenantza honetan ezarritakoaren kalterik gabe.

50. artikulua - Motak

Hauek hartuko dira zerga arau-haustetzat:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikorako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean izaera horrekin ezarritakoak.
- b) Hornitutako edo, hala badagokio, isuritako ur bolumena kontrolatzeko beharrezkoak diren elementuak ezkutatzea Partzuergoari.
- c) Ezkutuko kontsumoak edo erabilerak. Honakoak hartuko dira ezkutuko kontsumo edo erabileratzat: zerbitzuaren kontratazioa formalizatu gabe edo, hala badagokio, aurretiaz isurketa baimena lortu gabe egiten diren hornikuntza edo saneamendu zerbitzuen erabilerak, zerbitzu horiek arautzen dituzten Ordenantzetan edo aplikatu daitezkeen gainerakoetan jasotako arauekin bat etorritak.
- d) Ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak arautzen dituzten Ordenantzetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, beti ere, tasak ordainarazteko benetako magnitudeak ezkutatzeko eginez gero.

BIGARREN ATALA.- ZEHAPENAK ETA NEURRI OSAGARRIAK

51. artikulua - Araubide juridikoa

Zerga arau-haustek Bizkaiko Lurralde Historikorako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

Zehapen prozedura aipatutako Foru Arauan ezarritakoa izango da.

52. artikulua - Neurri osagarriak

Instalazioen manipulazioak eragindako iruzurra bada, Isurketa Baimena eta/edo hornidura eten egin daiteke, harik eta instalazioak jatorrizko egoera egokian utzi eta eragindako gastuak kitatu arte, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzan aurreikusitako baldintzetan.

53. artikulua - Iruzurtutako kopuruen zenbatespena

1. Egindako iruzurraren ezaugarrien ondorioz iruzurrez kontsumitu edo isuritako ur-kopurua zein tarifen ordainarazpena zenbatekotzerik ez dagoenean eta zehapenak ezartzerik ez dagoenean, honako zenbatespen-irizpide hauek erabiliko dira:
 - 1.1 Lehen mailako sareko hornidurak: segundoko lau litroren baliokidea (4 l/s), arau-haustea iraun duen bitartean, eta gehienez ere preskripzio epera arte.
 - 1.2 Bigarren mailako sareko hornidurak eta/edo saneamendu erabiltzaileak:
 - a) Etxeko erabilerak, eta ongintzako establezimenduei, udal bulego eta kiroldegiei zuzendutakoak eta udal aurrekontuaren konturako hornidurak: 90 egunean behin hogeituro metro kubikoren (20 m³) baliokidea, arau-haustea iraun duen bitartean, eta gehienez ere preskripzio epera arte.
 - b) Lanen hornikuntza, 50 m³-ko kopuruan (berrogeita hamar metro kubiko) 90 egunean behin bakoitzeko, arau-haustea iraun duen epean.
 - c) Industriako erabiltzaileak, saltegiak, zerbitzu establezimenduak, nekazaritza jarduerak, Foru Aldundiko, Autonomia Erkidegoko eta Estatuko Administrazio bulegoak, Erakunde autonomiadunak, etxeko ur beroko instalazio zentralizatuak, suteen aurkako sare-ahoetarako hornidurak eta artikulua honetako beste epigrafeetan barne hartuta ez dagoen beste edozein hornidura: 90 egunean behin hogeituro metro kubikoren (25 m³) baliokidea, hurrenez hurren, arau haustea iraun duen bitartean, eta gehienez ere preskripzio epera arte.
 - 1.3 Euren baliabideak dituzten etxeko Saneamendu Erabiltzaileak: 90 egunean behin isuritako 20 m³-ko ur-kopuruaren baliokidea, arau haustea iraun duen epean eta gehienez ere preskripzio epera arte.

Euren baliabideak dituzten gainontzeko Saneamendu erabiltzaileak: 90 egunean behin isuritako 100 m³-ko ur-kopuruaren baliokidea, arau haustea iraun duen epean eta gehienez ere preskripzio epera arte.
2. Aurreko paragrafoan adierazitakoak baino ustezko kontsumo handiagoak agertuz gero, kontagailu berria jarri eta hurrengo hiru hilabeteetako eguneko kontsumoak eta/edo dagokion zenbatespenak osatuko du dagokion tasa ordainarazi eta zehapena ezarri beharreko oinarria. Arau-haustea gertatu den aldian ezarriko da, eta gehienez ere preskripzio epera arte.

54. artikulua - Birjarpena eta kalte-ordaina

Zehapen-prozedurak eragindako administrazio-erantzukizunak honako hauekin bateratu ahal izango dira: erantzuleei arau-haustearen ondorioz aldatutako egoera jatorrizko egoerara itzultzeko eskatu; eta arau-haustea eragindako kalte-ordaina.

55. artikulua - Zehapenen etendura

Zerga izaerako zehapenen betearazpena zuzenean etengo da, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango zehapen horien aurkako errekurtsioa edo administrazio-erreklamazioa behar den unean eta eran aurkezteagatik bermea agertzea. Gainera, ezin izango dira betearazi harik eta administrazio-bidean irmoak izan arte.



VIII. KAPITULUA: BERRIKUSPEN PROZEDURAK

56. artikulua - Sarrera

Ordenantza Fiskal honen xede diren tasak aplikatzeko egintzak eta jarduerak eta zerga arloko zigorrak ezartzeko egintzak berrikusi egin ahal izango dira, indarrean dauden xedapen aplikagarrien arabera. Epai judizial irmoek berretsitako administrazio egintzak ez dira inolaz ere berrikusiko.

57. artikulua - Berrikuspenerako prozedura bereziak

Bizkaiko Toki Ogasunen Foru Arauan eta Zerga arloko Foru Arau Orokorrean xedatutakoak eta ezarri daitezkeen indarreko gainerako xedapenek ezarritakoak eraentzen dute Ordenantza Fiskal honen helburu diren tasei dagozkien zerga arloko egintzak berrikusteko prozeduren araubide juridikoa, hala nola, erabat deusezak diren egintzen berrikuspenerakoak, egintza deuseztagarrien kaltegarritasun deklarazioena, tasen aplikaziorako egintzen ezeztapenerakoak, zor ez diren diru-sarrerak itzultzekoak, eta akats materialak eta egitezkoak konpontzekoak.

58. artikulua - Birjarpenezko errekurtsua

1. Partzuergoak burutzen dituen Ordenantza Fiskal honetan araupetutako tasen ezarpen eta eraginkortasun-egintzen aurrean, birjarpenezko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza horiek eman zituen organoari, jakinarazpena jaso zenetik hasi eta hilabateko epean. Era berean, Toki Ogasunen Foru Arauan xedatutakoak eta ezarri daitezkeen indarreko gainerako xedapenek eraenduko dute birjarpenezko errekurtsua.
2. Birjarpenezko errekurtsuaren ebazpenaren aurrean, administrazioarekiko auzibide-errekurtsua jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzibideen eskumena araupetzeko legerian zehaztutako baldintzetan.

Lehenengo Xedapen Iragakorra

Hornidura eta Saneamendu ta Arazketa zerbitzuengatik Tasak

Hornidura-tasan (zerga-ordenantzaren eranskinean jasotako ur-horniduraren tasaren 3. epigrafea) eta saneamendu-tasan (zerga-ordenantzaren eranskinean jasotako saneamendu-tasaren 1.2. epigrafea) funtsezkotzat jotzen ez diren jarduerengatik zergak ordaindu behar dituztenei aplikatu beharreko kuota finkoa, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu duen estatuko araudiarekin bat etorritik, 0 eurokoa izango da. Xedapen iragankor hau indarrean jartzen denetik hasita eta egutegiko 98 eguneko epean egongo da indarrean.

Aurreko paragrafoan adierazitako xedapenak honako hauetarako zerga-ordenantzaren tarifa-datuen jardueretan izango du eragina: *“industriak, merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduak, nekazaritza-jarduerak, baso-instalazioak, autonomia erkidegokoak zein estatuko administrazioak, erakunde autonomoak, suteen aurkako sareen ahoak eta aurreko apartatuetan jaso ez den beste edozein hornidura”*.

Xedapen iragankorra ez zaie honako jarduera hauei aplikatuko:

OSPITALE OFIZIALAK
GARAJEAK-PUBLIKOAK
URA-ARAZKETA
ELIKAGAIAK
BANKETXEAK
KLINIKAK
EGOITZAK
BILTEGIAK
ALBAITARIAK-KONTSULTA
JANARIDENDA
AUDIFONOAK
KIOSKOA
AUTOZERBITZUAK-ELIKAGAIAK
BAKAILAOA
EDARIAK-BILTEGIA
EDARIAK-BOTILARATZE PLANTA
ANBULATEGI OFIZIALAK
HAZTEGIA
ODONTOLOGOA
HARAGIA-BILTEGIAK
HARATEGIA
KLINIKA-ALBAITARIAK
ITSASKITEGIA
KONTSERBAK
KOOPERATIBAK-ELIKAGAIAK
FARMAZEUTIKOAK-PRODUKTUAK
URDAITEGIAK
EKONOMATUAK
ELEKTRIZITATEA-KONPAINIAK
MERKATAL-JARDUERARIK GABEKO LOKALA
ESTANKOAK
FARMAZIA - PARAFARMAZIA
FRUTAK-BILTEGIAK
FRUTADENDAK
EHORZTETXEAK
ARRAUTZADENDAK
IZOZTUAK, PRODUKTUEN SALMENTA
URDAIAZPIKOAK-BILTEGIA



ESNETEGIAK
LIBURUDENDA/PAPERDENDA
MEDIKUAK-KONTSULTAK
PNEUMATIKOAK
NOTARIOAK
OPTIKA
ORDENAGAILUAK
MASKOTAK
ANIMALIAK
OKINDEGIAK
PATATAK-BILTEGIA
ARRAINDEGIAK
ARRAINAK-ERAKUSKETA
PENTSUAK-BILTEGIAK
OILASKO-DENDAK
PRAKTIKANTEA
GAZTAK
ALDIZKARIAK-SALTOKIA
ERITETXEAK
SUPERMERTUAK
TELEKOMUNIKAZIOA
TELEFONIA-DENDAK
TELEBISTA-ANTENAK
TELEBISTA-EMISOREAK
TINDATEGIAK GARBITEGIA/BULEGOAK
POSTA ETA TELEGRAFOA
MERTATU PARTIKULARRAK

ESNETEGIA
OGIA-FABRIKAK
GRANJAK
HARAGIAK-HILTEGI INDUSTRIALA
GARAJE PARTIKULARRAK
UREZTAKETA-HARTUNEA, LAGATAKO KONTAGAILUA
ELIKADURA-ARLOKO HANDIZKARIA
KORTA
ITURRI PRIBATUA
ORTUA
KAFFA-XIGORTEGIA
IZOZTUAK-FABRIKA
ZABORTEGIA
TERRAZARAKO HARTUNEA
SUTE-HARTUNEA KONTAG. GABE #30
SUTE-HARTUNEA KONTAG. GABE #45
SUTE-HARTUNEA KONTAG. GABE #70
SUTE-HARTUNEA KONTAG. GABE #100
UR HARTUNEA-KONTAGAILUAREKIN
HESTEBETEA-LANTEGIAK
ZERBITZUGUNEAK
GARAJEAK ETXEBIZITZAK
GASEOSAK-FABRIKAK
SUTEETARAKO HARTUNEA. KONT TANGA
KLINIKA-LABORATEGIAK
EDASKA
JATEKO PASTEN FABRIKA
ARRAIN HAZTEGI
SUTEETARAKO HARTUNEA KONTAGAILUDUNA
GOZOTEGIAK
BANAKAKO HARGUNE NAGUSIA
BEROTEGIA
KOMUN PUBLIKOAK
OLIBAK-UDAL MERTATUA
JATEKOAK-UDAL MERTATUA

EDARIAK-BILTEGIA-UDAL MERKATUA
JANARIDENDA-UDAL MERKATUA
HEGAZTI-HAZKUNTZA-UDAL MERKATUA
BAKAILAOA-UDAL MERKATUA
GOZOKIAK-UDAL MERKATUA
MUNICIPAL HARAGITEGIAK-UDAL MERKATUA
JATEKOAK, BILTEGIA-UDAL MERKATUA
GOZODENDA-UDAL MERKATUA
TXARKUTERIA-UDAL MERKATUA
FRUTADENDA-UDAL MERKATUA
ARRAUTZADENDA-UDAL MERKATUA
IZOZTUAK-UDAL MERKATUA
OKINDEGIA-UDAL MERKATUA
PATATAK-BILTEGIA-UDAL MERKATUA
ARRAINDEGIA-UDAL MERKATUA
OILASKODENDA-UDAL MERKATUA
OILASKODENDA-UDAL MERKATUA
SUPERMERKATUAK-UDAL MERKATUA
FRUITU LEHORRAK-UDAL MERKATUA

ZENTRO OFIZIALAK-2. HARTUNEA
INDUSTRIAK-BIGARREN HARTUNEA
IZOTZA-FABRIKAK
PAPERA-FABRIKAK
BIRFINDEGIAK
TINDATEGIAK-TAILERRA
AIRE GIROTUA-TAILERRA
TINDATEGIA-UDAL MERKATUA
SANEAMIENTO INDUSTRIA SANEAMENDURIK GABE
IND. 2. HART. IURRETA SANEAM. GABE
HERRI ERAKUNDEAK
FABRIKAK
TAILERRAK
ERAIKUNTZA LANAK
BULKANIZAZIOAK
BITARTEKARIEN BILTEGIA (PORTUGALETE)
ONTZIOLAK
AUTOBUSAK
INDUSTRIA-TAILERRA
BERNIZATZAILEAK-TAILERRAK
ATOI-ONTZIAK
GALDARAGINTZA-TAILERRA
ZERRATEGIA
KAMIOIAK
AROSZTEGIAK
INDUSTRIA EDUKIONTZIAREKIN (ETXEBARRIA)
500 M2-TIK GORAKO BILTEGIA - INDUSTRIA (DERIO)
ZEMENTOA-FABRIKA
MOLDEATEGIA
KROMAKETA-TAILERRA
TXATARRAK
ELEKTRIZITATEA-FABRIKAK
ELEKTRIZITATEA-TAILERRAK
ELEKTROMEKANIKA-TAILERRA
ELEKTRONIKA TAILERRAK
INDUSTRIA/TAILERRA JARDUERARIK GABE
IGELTSUA-TAILERRA
ESTANPAZIOAK
GALDATEGIAK
BUTANOA/PROPANOA/GASOLINA
BURDINOLAK
BURDINA
HORMIGOIA-FABRIKA



LABORATEGIAK
IJEZKETAK-FABRIKAK
MAKINAK-KONPONKETAK
MARMOLAK-TAILERRA
METALAK-TRATAMENDUA
METALURGIA
MEATEGIAK
INDUSTRIAKO MUNTIAK
MOTOREAK
ZOLADURAK
LURRINAK-FABRIKAK
EGUNKARIAK-ENPRESAK
ERREFRIGERAZIOA
ZAHARBERRITZEA-TAILERRA
ARRABOLAK-FABRIKA
SIDERURGIA
SOLDADURA-TAILERRA
MEKANIKOAK-TAILERRAK
TORNUAK-TAILERRAK
TROKELAK
KONTAGAILU OROKORRA, INDUSTRIAK

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

2022ko EKITALDIAN EZARRIKO DIREN TASAK

I. Ur Hornikuntza Tasa

1. Partzuegoratutako udalei lehen mailako sarean hornidurak edo "alta": 0,5029 euro/m³
2. Kuota finkoa, 90 egunetik behin, 6. epigrafearen erabiltzaileentzat, kontagailuaren kalibrearen arabera.

Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)	Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)
15 mm-raino	7,7311	65 mm	12,7211
20 mm	9,7035	80 mm	15,0582
25 mm	9,9403	100 mm	25,5450
30 mm	10,2263	125 mm	31,4849
40 mm	10,5615	150 mm	38,8380
50 mm	11,4885	200 mm-tik aurrera	67,7955

Kontagailurik ez duten hartuneei 15 mm-ko kalibreari dagokion kuota finkoa aplikatuko zaie.

3. Kuota finkoa, 90 egunetik behin, 4, 5, 7, 8 eta 9. epigrafeen erabiltzaileentzat, kontagailuaren kalibrearen arabera:

Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)	Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)
15 mm-raino	7,7505	65 mm	49,8576
20 mm	9,7474	80 mm	71,3763
25 mm	12,0481	100 mm	102,1390
30 mm	15,2595	125 mm	124,5110
40 mm	22,5830	150 mm	146,6154
50 mm	32,1847	200 mm-tik aurrera	207,5340

Kontagailurik ez duten harguneei 15 mm-ko kalibreari dagokion kuota finkoa aplikatuko zaie

4. Urtean 4 l/sg-ko gutxieneko kontsumoa duten etxetik kanpoko erabiltzaileei hornidurak lehen mailako sarean edo "alta".

Kuota aldakorra 80 m³-ra arte.....1,4327 euro/m³
Kuota aldakorra 80 eta 500 m³ arteko kontsumoetarako1,4890 euro/m³
Kuota aldakorra 500 m³-tik gorako kontsumoetarako1,1640 euro/m³

5. Etxebizitzetakoak ez diren erabiltzaileentzako aldi baterako hornidurak (edo banaketa saretik hornitzea ezinezkoa izateagatik) lehen-mailako sarean edo "goi"-horniduran:

Kuota aldakorra 80 m³-raino1,4327 euro/m³
Kuota aldakorra 80 eta 500 m³ arteko kontsumoetarako1,4890 euro/m³
Kuota aldakorra 500 m³-tik gorako kontsumoetarako1,5353 euro/m³



6. Etxeko erabiltzaileentzako hornidurak, ongintzako saltokiak eta ur beroko instalazio zentralizatuak barne:

Kuota aldakorra 25 m³-ra arteko kontsumoetarako 0,6599 euro/m³
 Kuota aldakorra 25 eta 75 m³ arteko kontsumoetarako 0,8103 euro/m³
 Kuota aldakorra 75 m³-tik gorako kontsumoetarako 1,4548 euro/m³

7. Udal-kirol bulego eta instalazioetarako, kontsumoa edozein delarik ere:..... 0,6228 euro/m³

8. Industriarako, merkataritza-saltokietarako, zerbitzuetarako, nekazaritza ekintzetarako, foru-bulegoetarako, autonomia erkidegoko eta Estatuko administrazio-bulegoetarako, erakunde autonomoetarako, sute-ahozentzako eta aurreko ataletan aipatu ez diren bestelakoentzako bigarren mailako sareko hornidurak:

Kuota aldakorra 80 m³-ra arteko kontsumoetarako 1,4127 euro/m³
 Kuota aldagarria 80 eta 500 m³ arteko kontsumoetarako 1,4690 euro/m³
 Kuota aldakorra 500 m³-tik gorako kontsumoetarako 1,5153 euro/m³

Ur-hartune, tanga-ibilgailu eta antzekoen kasuetan, kontsumoa 15 egun baino gutxiagokoa izango bada, eguneroko 20 m³ bakoitzeko adierazitako prezioa ezarriko da.

9. Bigarren mailako sarearen hornidura, 9. artikuluan (b atala) ezarritako baldintzak betetzen dituzten nekazaritzako edo abeltzaintzako profesionalentzat:

80 m³ baino gutxiagoko kontsumoetarako kuota aldagarria 1,0255 euro/m³
 80 eta 200 m³ bitarteko kontsumoetarako kuota aldagarria 1,0660 euro/m³
 200 m³ baino gehiagoko kontsumoetarako kuota aldagarria 1,0984 euro/m³

II. Saneamendu Tasa (Zerga Egitatea, 9b artikulua)

1. A, B eta C motetako erabiltzaileak

1.1 Kuota finkoa, 90 egunetik behin, 2.1.1 eta 2.2.1 epigrafeen erabiltzaileentzat, kontagailuaren kalibrearen arabera:

1.1.1 Partzuergoak behe-saneamendu-sarearen kudeaketa hitzartu ez duen udalerrietan.

Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)	Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)
Hasta 15 mm.	8,3550	65 mm.	24,4818
20 mm	9,8150	80 mm	29,6092
25 mm.	11,4657	100 mm.	39,4763
30 mm.	13,1506	125 mm.	45,2583
40 mm.	16,3029	150 mm.	63,5335
50 mm.	19,8211	Desde 200 mm.	83,2806

1.1.2 Partzuergoak behe-saneamendu-sarearen kudeaketa hitzartu duen udalerrietan

Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)	Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)
Hasta 15 mm.	8,5550	65 mm.	24,6818
20 mm	10,0150	80 mm	29,8092
25 mm.	11,6657	100 mm.	39,6763
30 mm.	13,3506	125 mm.	45,4583
40 mm.	16,5029	150 mm.	63,7335
50 mm.	20,0211	Desde 200 mm.	83,4806

Kontagailurik ez duten hornidurako hartuneetako isurketei 15 mm-ko kalibreari dagokion kuota finkoa aplikatuko zaie.

1.2. Kuota finkoa, 90 egunetik behin, 2.1.2, 2.1.3, 2.2.2 2.2.3 eta 3 epigrafeen erabiltzaileentzat, kontagailuaren kalibrearen arabera:

1.2.1 Partzuergoak behe- saneamendu-sarearen kudeaketa hitzartu ez duen udalerrietan.

Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)	Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)
Hasta 15 mm.	8,4958	65 mm.	58,0587
20 mm	10,3466	80 mm	83,5560
25 mm.	13,0743	100 mm.	119,2151
30 mm.	16,8883	125 mm.	145,1741
40 mm.	25,6299	150 mm.	170,1788
50 mm.	37,0229	Desde 200 mm.	239,4056

1.2.2. Partzuergoak behe- saneamendu-sarearen kudeaketa hitzartu duen udalerrietan

Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)	Kontagailuaren diametroa	Zerbitzu kuota (€)
Hasta 15 mm	8,6958	65 mm	58,2587
20 mm	10,5466	80 mm	83,7560
25 mm	13,2743	100 mm	119,4151
30 mm	17,0883	125 mm	145,3741
40 mm	25,8299	150 mm	170,3788
50 mm	37,2229	Desde 200 mm	239,6056

Kontagailurik ez duten hornidurako hartuneetako isurketei 15 mm-ko kalibreari dagokion kuota finkoa aplikatuko zaie.



2. A eta B motatako erabiltzaileak:

2.1 Isurketak kolektoreen sare publikoaren bitartez egiten direnean:

2.1.1 Etxeko erabiltzaileen isurketak, ongintzazko establezimenduak eta ur beroko instalazio zentralizatuak barne:

Kuota aldakorra 25 m ³ -ra arteko kontsumoetarako.....	0,6804 euro/m ³
Kuota aldakorra 25 eta 75 m ³ arteko kontsumoetarako.	0,8303 euro/m ³
Kuota aldakorra 75 m ³ baino gehiagoko kontsumoetarako.....	1,4748 euro/m ³

Berezko baliabideetako etxeko isurketen kuota aldakorra zehazteko, 20 m³-ko kontsumoko prezioa ezarriko da 90 egunetik behin.

2.1.2. Udaleko kirol bulego eta instalazioen isurketak, kontsumoa edozein delarik ere:

..... 0,6486 euro/m³

2.1.3 Industrien, merkataritza-saltokien, zerbitzuen, nekazaritza jardueren, foru-bulegoen, autonomia erkidegoko eta Estatuko administrazio-bulegoen, erakunde autonomoen, sute-ahoen eta aurreko ataletan aipatu ez diren bestelakoen isurketak:

Kuota aldakorra 80 m ³ -ra arteko kontsumoetarako.....	1,4327 euro/m ³
Kuota aldakorra 80 eta 500 m ³ arteko kontsumoetarako	1,4890 euro/m ³
Kuota aldakorra 500 m ³ baino gehiagoko kontsumoetarako	1,5353 euro/m ³

Ureztaketa-hartuneetako, tanga-ibilgailuetako eta antzekoetako isurketen (15 egunetik beherako iraupenarekin) kasuan, adierazitako prezioa eguneko 20 m³-ren arabera aplikatuko da.

Epigrafe hau saneamendu sistemak zerbitzatutako eremuetan dauden titulartasun pribatuko arazketa instalazio autonomoetatik datozen isurketei ere zaie aplikagarria.

2.2 Isurketak araztegi zuzenean egiten direnean:

2.2.1 Etxeko erabiltzaileen isurketak, ongintzazko establezimenduak eta ur beroko instalazio zentralizatuak barne:

Kuota aldakorra 25 m ³ -ra arteko kontsumoetarako.....	0,5284 euro/m ³
Kuota aldakorra 25 eta 73 m ³ arteko kontsumoetarako.	0,6440 euro/m ³
Kuota aldakorra 75 m ³ -tik gorako kontsumoetarako.....	1,1403 euro/m ³

Berezko baliabideetako etxeko isurketen kuota aldakorra zehazteko, 20 m³-ko kontsumoko prezioa ezarriko da 90 egunetik behin.

2.2.2 Udaleko kirol bulego eta instalazioen isurketak, kontsumoa edozein

delarik ere:..... 0,4994 euro/m³

2.2.3 Industrien, merkataritza-saltokien, zerbitzuen, nekazaritza jardueren, foru-bulegoen, autonomia erkidegoko eta Estatuko administrazio-bulegoen, erakunde autonomoen, sute-ahoen eta aurreko ataletan aipatu ez diren bestelakoen isurketak:

Kuota aldakorra 80 m ³ -ra arteko kontsumoetarako.....	1,1079 euro/m ³
Kuota aldakorra 80 eta 500 m ³ arteko kontsumoetarako.....	1,1511 euro/m ³
Kuota aldakorra 500 m ³ -tik gorako kontsumoetarako	1,1869 euro/m ³

Ureztaketa-hartuneetako, tanga-ibilgailuetako eta antzekoetako isurketen (15 egunetik beherako iraupenarekin) kasuan, adierazitako prezioa eguneko 20 m³-ren arabera aplikatuko da.

3. C eta B motatako erabiltzaileak, eta prozesu-urentzat isurketa-baimena eta kolektorera isurtzeko dispensa eskuratu duten B gisa sailkatutakoak

3.1.- Isurketak kolektoreen sare publikoaren bitartez egiten direnean:

- a) Isuritakoak, lehen edo bigarren mailako sarekoak edo berezko baliabideetakoak 1,3407 Euro
- b) Zama kutsatzailea:
- | | |
|----------------------------|-------------|
| DQOrako gehiegizko kg..... | 0,2454 Euro |
| SSTrako gehiegizko kg..... | 0,3615 Euro |
| N-NH3rako gehiegizko | 1,0775 Euro |

Erreferentziatzko batez besteko kontzentrazioa:

Mok: Materia organikoaren koefizientea: DQO 900 mg O₂/l
 Gsk: guztirako solidoen koefizientea: SST 675 mg/l
 Nak: Nitrogeno Amoniakalaren Koefizientea: N-NH₃ 54 mg/l

3.2.- Isuritakoak araztegi zuzenean egiten direnean

- a) m
 3 isurtzeak, lehen edo bigarren mailako sarekoak edo berezko baliabideetakoak
 1,2067 euro
- b) Zama kutsatzailea:
- | | |
|-------------------------------|-------------|
| DQOrako gehiegizko kg..... | 0,2454 euro |
| SSTrako gehiegizko kg..... | 0,3615 euro |
| N-NH3rako gehiegizko kg | 1,0775 euro |

Erreferentziatzko batez besteko kontzentrazioa:

Mok: materia organikoaren koefizientea: DQO 900 mg O₂/l
 Gsk: guztirako solidoen koefizientea: 675 mg/l GSE.
 Nak: nitrogeno amoniakalaren koefizientea: 54 mg/l de N-NH₃.

4. Isurketak araztegi baten irteerara edo hustubide batera zuzenean egiten direnean: isuritako m³-ak, lehen edo bigarren mailako sarekoak edo berezko baliabideetakoak 0,3083 €/m³

5. Ureztaketa-hartuneetako, tanga-ibilgailuetako eta antzekoetako isurketen (15 egunetik beherako iraupenarekin) kasuan, adierazitako prezioa eguneko 20 m³-ren arabera aplikatuko da.



Ezohiko Isurketak:

Kolektorera isurtzeko baimenik ez duten Partzuergoaren esparruko isurketei, halaberrez Partzuergoko erabaki-organoek onartuko balituzte, 180,97 euroko zerga ezarri beharko zaie m³-ko.

6. Indarreko hitzarmena duten hondakindegien lixibatuetatik datozen isurketak:

Indarreko hitzarmena duten hondakindegien lixibatuak tratatzeagatiko tasa 3,7422 €/m³-koa izango da.

8. Arazketarako Instalazio Autonomoetatik datozen isurketak (AIak):

Partzuergoaren esparruan kokatutako instalazio horietan sortutako hondakinen tratamendurako tasa 100,46 euro/tm izango da.

III.- HARTUNEAK BETEARAZTEAGATIKO TASA (Zerga Egitatea, 10. artikulua)

	Bideratzeko "T" daukaten hartuneak 10 m luzerako egituretan				Lepodun hartuneak 10 m luzerako egituretan			
Egituraren diametroa:	Hartuneen hodian diametroa (Hazbeteak)				Egituren hodian diametroa (Hazbeteak)			
Hartunearen jatorria	2½	2	1½	1	2½	2	1½	1
250	3.688,25	3.144,24	3.042,42	2.929,51	1.933,78	1.810,25	1.751,25	1.600,28
200	2.444,19	2.065,46	1.989,11	1.904,44	1.615,63	1.379,89	1.327,28	1.199,28
150	2.295,31	2.025,06	1.948,71	1.864,01	1.171,24	905,63	850,28	768,02
125	2.030,19	1.777,41	1.709,61	1.616,43	952,58	842,50	780,81	706,27
110	1.761,55	1.573,32	1.586,32	1.475,03	907,74	800,67	774,81	690,66
100	1.704,92	1.484,16	1.407,80	1.323,10	855,41	881,24	762,74	678,54
90	1.606,89	1.397,03	1.288,06	1.233,70		776,16	754,99	677,66
75		1.353,59	1.284,13	1.199,43			723,60	674,26
63ra arte			1.152,70	1.095,63			698,87	652,61

Luzeraren hazkundera, hodi-metro bakoitzeko	2½	2	1½	1
		35,35	39,11	16,04

IV. Kontagailuei dagokienez zenbait zerbitzu emateagatiko tasak (Zerga Egitatea, 11. artikulua)

a) Kontagailuak hornitu eta ordezte:

Kontagailuaren diametroa	Zenbatekoa, eurotan	
	Kontagailu arruntak	Suen kontrako segurtasuna
13 mm	71,78 €	
15 mm	71,78 €	
20 mm	85,08 €	
25 mm	122,13 €	
30 mm	133,55 €	
40 mm	201,25 €	
50 mm	328,21 €	260,32 €
65 mm	456,32 €	296,44 €
80 mm	643,08 €	320,80 €
100 mm	750,41 €	567,00 €
125 mm	862,04 €	738,00 €
150 mm	973,67 €	973,67 €
200 mm	1.294,52 €	1.248,33 €

b) Kontagailuen alokairua (90 egunetik behin)

Kontagailuaren diametroa	Zenbatekoa, eurotan
13 mm.	1,2398
15 mm.	1,3821
20 mm.	1,7364
25 mm.	2,8121
30 mm.	4,1240
40 mm.	6,6897
50 mm.	13,9269
65 mm.	17,0171
80 mm.	20,9292
100 mm.	25,7492
125 mm.	29,8648
150 mm.	39,1490
200 mm.	75,5486
250 mm.	94,2402
300 mm.	124,7220
400 mm.	155,1836
500 mm.	234,9228

c) Kontagailuak muntatu eta kentzea eta horiek lekuz aldatzea

Kontagailuaren diametroa	Zenbatekoa, eurotan
13 mm-tik 20 mm-ra, biak barne	20,85
25 mm-tik 40 mm-ra, biak barne	24,54
50 mm-tik 100 mm-ra, biak barne	100,49
125 mm-tik 200 mm-ra, biak barne	236,53



d) Kontagailuak mantentzea (90 egunetik behin)

Kontagailuaren diametroa	Zenbatekoa, eurotan
13 mm	1,4763
15 mm	1,6814
20 mm	2,7480
25 mm	2,9668
30 mm	3,8556
40 mm	5,5098
50 mm	17,6777
65 mm	21,8206
80 mm	28,7251
100 mm	36,2171
125 mm	34,5764
150 mm	43,6273
200 mm	88,0202
250 mm	110,0052
300 mm	132,2222
350 mm	176,8135
400 mm	202,0726
500 mm	257,3350

e) Kontagailuak egiaztatzeagatiko tasa

Kontagailuaren diametroa	Zenbatekoa, eurotan
13 mm	23,30
15 mm	23,61
20 mm	24,17
25 mm	29,33
30 mm	31,32
40 mm	35,17
50 mm	122,42
65 mm	119,94
80 mm	123,48
100 mm	127,90
125 mm	253,52
150 mm	260,08
200 mm	285,87

IV bis. Alten, bajen eta titulartasun-aldaketen administrazio-tasak

Prezioa 35 eurokoa da izapidetutako alta, baja edo titulartasun-aldaketa bakoitzeko.

V.- Banaketa sarean lanak egiteagatiko eta lan partikularrak direla-eta zerbitzuak emateagatiko tasa

- a) Partikularrek beharrezana justifikatuta, ur mozketara programatuek eta horiek berrezartzeak, edo banaketa sarean, hustubideetan edo barruko instalazioetan egindako bestelako ekintzek, honako tarifa izango dute:
- Banaketa sarean egiten den ekintza-eskaera bakoitzeko, 90,62 euro.
- b) Mozketaren edo berrezartzearen ekintza premiazko esku-hartzea eskatzen duen istripuzko apurketa baten ondorioa denean, hala banaketa sarean eta partikularrek eragindakoa, nola ur hornidurarako barruko instalazioetan, Partzuergoak 181,27 euro fakturatu ahal izango ditu, kontzeptu horrengatik, ur-hornidura falta den ordu bakoitzeko. Interesduna behartuta dago Partzuergoak era subsidiarioan egingo lukeen konponketa ordaintzera, eta, hori guztiori, balizko erantzukizunetatik ondoriozta litekeena kontuan hartu gabe.
- c) Partzuergoaren jarduketara banaketa-sareko instalazioen zabalkuntza edo aldarazpena egiteko eta, halaber, industrialde berrietako hornikuntzak egiteko eskabide baten emaitzako konexio berri bat denean, tasaren zenbatekoa erabiliko diren materialen eta bere diametroen konbinazioarekin definituko da, honako taula honekin bat:

Kontzeptua	Diametroa	Tasa
1 T motako konexio-unitatea	DN 60mm	184,17
1 uhate-giltza unitatea	DN 60mm	248,63
1 brida-entxufe unitatea	DN 60mm	209,37
1 T motako konexio-unitatea	DN 80mm	235,75
1 uhate-giltza unitatea	DN 80mm	320,68
1 brida-entxufe unitatea	DN 80mm	266,19
1 T motako konexio-unitatea	DN 100mm	248,00
1 uhate-giltza unitatea	DN 100mm	365,01
1 brida-entxufe unitatea	DN 100mm	309,50
1 T motako konexio-unitatea	DN 125mm	301,68
1 uhate-giltza unitatea	DN 125mm	475,75
1 brida-entxufe unitatea	DN 125mm	375,62
1 T motako konexio-unitatea	DN 150mm	387,28
1 uhate-giltza unitatea	DN 150mm	617,39
1 brida-entxufe unitatea	DN 150mm	524,97
1 T motako konexio-unitatea	DN 200mm	662,89
1 uhate-giltza unitatea	DN 200mm	977,56



1 brida-entxufe unitatea	DN 200mm	<i>642,53</i>
1 T motako konexio-unitatea	DN 250mm	<i>1.679,30</i>
1 uhate-giltza unitatea	DN 250mm	<i>2.103,68</i>
1 brida-entxufe unitatea	DN 250mm	<i>1.224,23</i>

VI.- Arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraiatzeko lanen tasa (15.B eta 15.C artikuluetan)

Etxebizitzetako Hondakinak

- Etxebizitza bat edo bi etxebizitza ezberdinentzako putzu septikoa izanik
Prezioa 50,44 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko.
- Putzu septikoa hiru etxebizitza eta sei etxebizitza arteko eraikinentzako izanik
Prezioa 100,88 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko.
- Putzu septikoa sei etxebizitza baino gehiagoko eraikinentzako izakik
Prezioa 151,32 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko.
- Kamioi bidai berean 2 putzu septiko ezberdin garbitu daitezkeneko hobaria %15a hobaririk gabeko prezioarekiko, 42,87 euro/putzu direlarik.
- Kamioi bidai berean 3 putzu septiko edo gehiago garbitu daitezkeneko hobaria %30a hobaririk gabeko prezioarekiko, 35,31 euro/putzu direlarik.

Hondakinak etxebizitetan sortuak ez direnean

- 5 m³-rainoko putzu septikoak
Prezioa 50,44 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko
- 5 m³ eta 15 m³ arteko putzu septikoetan
Prezioa 100,88 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko.
- 15 m³ baino gehiagoko putzu septikoetan
Prezioa 151,32 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko.



II. ERANSKINA

UR BELTZEN BOLUMEN ETA ZAMA

POLUITZAILEAREN KALKULUA

1.- Urtean isurtzen diren ur beltzen bolumena

Langileen zerbitzuetarako ur kontagailua duten enpresei dagokienez, hornitutako ur guztia isurtzen dela ulertuko da. Datu hori izan ezean, enpresaren urteko batez besteko langile-kopuruaren arabera ebaluatuko da, egunean 75 litro hornitzen direla ulertuta. Oro har, eta enpresak justifikatzen duenean izan ezik, urtean 220 lanegun daudela hartuko da kontuan. Datu horietan oinarrituta, ur beltzen isurketa ondorengo izango da:

$$V_f (\text{m}^3/\text{urtean}) = (\text{Enplegu-kop.} \times \text{hornidura} \times 220) / 1.000$$

2.- Ur beltzen zama poluitzailea

Bilbao bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamendu eta Arazketa zerbitzua arautzen duen Ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz, zama poluitzailea kalkulatzeko, erreferentziako kontzentrazio hauek hartuko dira aintzat hiri izaerako hondakin urentzako:

DQO: 500 mg O₂/l

SST: 450 mg/l

N-NH₃: 40 mg/l

Kontzentrazio horietatik abiatuta, ur beltzek eragindako zama poluitzailea kalkulatzeko ondoko adierazpenak erabiliko ditugu:

$$\text{Kg DQO} = (V_f (\text{m}^3) \times 500) / 1.000$$

$$\text{Kg SST} = (V_f (\text{m}^3) \times 450) / 1.000$$

$$\text{Kg N-NH}_3 = (V_f (\text{m}^3) \times 40) / 1.000$$

III. ERANSKINA

EURI-URAK (OHARRAK ETA BOLUMENEN KALKULUA)

1.- Euri-urei buruzko oharrak

Saneamendu eta Arazketa zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren . 31. artikulua xedatutakoaren arabera, estolderia pribatuek banatuta eraman behar dituzte euri-urak eta hondakin urak estolderia publikora edo araztegiara iritsi arte.

Ordenantza Fiskal honen ondorioetarako, hondakin urekin, industriakoak nahiz beltzak, nahasten diren euri-urak edo euri-ur poluituak berezko baliabidetzat hartuko dira, eta uron bolumenaren kalkulua ondorengo lerroaldean ezarritako irizpideen arabera egingo da.

Poluziorik ez duten eta banatuta eramaten diren euri-urak gertuen dagoen ubide naturalera edo euri-uren sarera isuriko dira, saneamendu sarea urez gehiegi ez kargatzeko. Enpresaren kokalekua dela-eta, euri-ur garbiak ezin badira isuri ez ubide naturalera ez euri-uren sarera, eta saneamendu sarera isuri behar badira, ez dira zenbatuko Ordenantza Fiskalaren ondorioetarako, betiere, hondakin uretatik bereizi isurtzen badira sarera.

2.- Euri-uren bolumenaren kalkulua

Euri-uren bolumenaren kalkulua egiteko ondorengo irizpideak hartzen dira aintzat:

Urteko batez besteko prezipitazioak: 1.200 mm

Isurketa-koefizientea gainazal iragazgaiztu eta zolatuetarako: 0'85

Isurketa-koefizientea gainazal iragazgaiztu eta zolatu gabeetarako: 0'15

Gainazal baten batez besteko isurketa-koefizientea aztertutako zona guztiaren isurketa-koefizienteen eta gainazal partzialen batez bestekoa da:

$$c = \frac{\sum c_i x S_i}{\sum S_i}$$

Datu horiekin, euri-uren bolumena ondorengo adierazpena erabilia kalkulatzen da:

$$V_p \text{ (m}^3\text{/urtean)} = \text{Gaizanala (m}^2\text{)} \times c \times 1,2$$